

LENGUA Y LITERATURA VASCAS

Salbatore Mitxelenaren *Erri bat guruzbidean*. Teatro kodean idatzitako erbesteko pentsamolde existenzialista baten erretratu soziologiko-teologiko-politiko.

Salbatore Mitxelena's A Country at the Crucifixion. A Sociological, Theological and Political Portrait of a Basque Existentialist Mindset, Written in Theatrical Code.

IDOIA GEREÑU ODRIOZOLA

idoia.gereñu@ehu.eus
EHU-UPV

Recepción: abril de 2023. Aceptación: mayo de 2023

Laburpena: Erretratu bat da *Erri bat guruzbidean* antzezlan literarioa, autoreak irakurtzeko soilik idatzi zuena hasieran, eta gero *Confixus* izenburupean oholtza gainerako beste bertsio bat duena. Erretratu bat den heinean, 1936ko gerra garaian eta jarraian erbestean bizitako barne gatazkak kontatzen ditu; bai autorearenak, baita euskal gizarteko kristau esparru zabal batenak ere. Gatazka horien erretratua teatro kodean idatzi zuen Mitxelenak, bizitzaren gordina adierazteko antzerkia antzerkiaren barruan eraikiz, datu historikoak emanaz eta existenzialismoa kristautasunarekin uztartuz.

Gako-hitzak: Mitxelena, euskal antzerkia, kristautasuna, erbestea, guruzbidea.

Abstract: The dramatic piece *A Country at the Crucifixion* is a portrait written to be read, with another version to play on the stage under the title *Confixus*. As a portrait, it narrates the internal conflicts of the Franciscan author, who experienced the Spanish Civil War in 1936 and the exile. The drama is also a representation of Basque Christian society and the rawness of existence of that generation. Mitxelena wrote the portrait of these conflicts in the theater code building a metatheatrical spectacle with historical data and a way of understanding existentialism combined with Christianity.

Key words: Mitxelena, basque theatre, christianity, exile, crossroad.

I.- SARRERA

Gutxi ikertu da 1936ko gerra osteko eta erbesteko euskal literatura, are gutxiago erbesteko teatroaren esparrua. Saiakera horretan memoriaren berreskuratze lan bat egin nahi da eta hedadura lausoan, *Erri bat guruzbidean* izeneko zaurian jarriko da ahalegina. Berau lau ataletan ardaztuko da: euskal teatroan gogoia, 1936ko erbestealdian oroimina, herriarenganako miresmenean gorazareta, kristau-fedean errespetuzko entzumena.

Gutxi hitz egin da frankismoak euskaldun idazle erbesteratuen artean izan zuen eraginaz, eta oso gutxi dira egoera lazarrietan idazteari ekin zioten sortzaileak. Dramagintzan sormen lanetan aritu zirenen artean genero maskulinoa besterik ez da ageri kanpo-erbestea eta teatroa uztartzen dituen mapan¹; horietako bat lan honen ardazduran: Salvatore Mitxelena. Literatura arloan, poeta eta saiakeragile bezala ezaguna eta laudatua berau, batik bat. Bada, beste generoen artean, teatroa idazteko hautua ere egin zuen eta tartean erbestera egin zen. Gai nagusi eta bakarra izan zuen buruan hogeitau urte luzez Mitxelenak, eta antzerkita ekarri zuen *Erri bat guruzbidean* izenburupean. Obra horren bertsio eta moldaketa ezberdinak idatzi zituen paperean, tartean bigarren obra bezala autoreak aurkeztuko digun *Confixus*. Azken hau izan zen idatzita utzi zuen bere azken lana.

Beste erbesteko autore batzuekin konparatuz gero, zorionez haren lana eza-gutxera emanaz idatzi dira liburuak, artikuluak, elkarrizketak eta gogoetak, Mitxelenak legatua utzi baitu euskal literaturan. Poesian eta saiakeran euskaldunen nolabaiteko errekonozimendua jaso izan du idazleak, eta bide horretan *Erri bat guruzbidean* (eta *Confixus*) antzerki obra idatzi izana guztiz esanguratsua da, kontatu nahi zuen hura esateko hizkuntza teatrala baliotsua zitzaioela jakitun izan baitzen. Mitxelenaren bizi-kezketan ageri diren gai nagusiak euskal komunitatearen oinaze-bizimoldea, bere nortasunaren defentsa eta duintasuna, fedea, gizarte heterogeneo hautsia eta ortodoxiak eragindako mina dira, eta horiek guztiak teatro hizkeran adierazi izana asmo zehatz baten emaitza da, are gehiago idazlana borobiltzeko edo garatzeko hiru hamarkada eman zituela kontuan hartzen bada.

1940an idatzi zituen Salvatore Mitxelenak *Erri bat guruzbidean* lehen lerroak, 1936ko Espainiako Gerra Zibilaren azken egunak oraindik azalean zituela. Eta badirudi, 1958 arte hura taxutzen aritu zela (1940-1950-1958 urteak aipatzen ditu autoreak berak testuaren amaieran, obra idazten igaro zuen denborari erreferentzia eginaz). 1962ra arte (1960-1962 urteak ageri dira obra honen amaieran), ideia berarekin buruan, *Confixus* ondu zuen. Ez bata, ez bestea, ez ziren 1977 arte argitaratu.

Erri bat guruzbidean metateatro kostunbrista-erlijiosoaren paradigma bat da, dramagintza literario idatziari hertsiki lotua dagoena, eta hala ere, berrikuntzarako saiakera egiten duena bai forman bai pentsamoldean, belaunaldien arteko

¹ Ikus Amaia Álvarezzen (2007) «Katarife Eleizegi, barne erbesteko kasu bat» eta Mari Karmen Gil (2007) «Breve diccionario de mujeres vascas en el exilio» artikuluak.

zubilana eginaz. Ostiral Santu eguneko prozesioan kokatzen da obra eta kristau profeta den Jesusen heriotzarako bideko hamalau egonaldien errepresentazioa euskalduntasunaren sufrikarioarekin erkatzen du. *Garo-usaia*² darión antzeztan kostunbrista da honakoa, teatro abangoardistaren ezaugarri gutxi betetzen dituena. Alabaina, Salvatore Mitxelena bere garaiko semea izaki, belaunaldi berri baten ateetan idatzi zuen idazle alegorikoa izan zen, eta kostunbrismoaren ereduari jarraitu bazion ere, mundura begirada zabalik zuela adierazten duten erreferentziak ageri dira ondo taxututako antzeztanean. Erreferentzia hauek eta testuaren alde esanguratsuak behar bezala ulertu eta aztertzeke, aipatu diren lau atalak (euskal teatroa, erbestealdia, herria, kristau-fedea) Salvatoreren begietara nola izan ziren aztertuko dira lan honetan.

II.- MITXELENAREN URRATUAK ULERTZEKO ERREFERENTZIA HISTORIKOAK ETA ANTZEZLANEKO PASARTEAK

Jose Angel Ascuncek (2013: 17) erbesteko literatura ikertzerakoan pertsonaren eta taldearen nortasuna hiru elementuk baldintzatzen dutela zioen: niak, testuinguruak eta bestearekiko elkarreraginak. Eta nortasun hori ez dela iraunkorra izaten, aldaketaren artean dabilen indar eraldatzaile bat dela baizik, eraikuntzan dabilen esentzia bat, nolabait. Bi ideiak ezinbestekoak dira *Erri bat guruzbidean* antzeztanaren funtsa aztertu, ulertu eta balioesteko.

Salvatore baserri giro abertzalean Zarautzen jaio eta hezi zen, Arantzazuko seminarioan bere ikasketak hasi zituen arte. Ama gazterik hil zitzaion eta Arantzazuko Ama Birjinari eskaini zion orduztik, eta aurrerantzean, amari zor zion maitasuna. Arantzazuko apaizgaien aterpean garatu zituen betikoz bizimodua baldintzatuko zizkion kristau fedea eta abertzaletasuna³. Aldi berean, fede eta abertzaletasun haietxek berak izan ziren bizi izan zen artean bere guruzbideak; maitasun leratsu baitzituen biak, eta min eta oinazea bihurtu baitzitzazkion. Bi gai hauek bultzatu zuten fraidea *Erri bat guruzbidean* idaztera eta bere belaunaldiari gertatutako liskarrek osatu zuten guruzbidearen mimesi gisara aurkeztera.

Kezkak eta arrangurak 1936ko gerraz geroztik etorri ziren. Mitxelena Espainiako Gerra Zibilak Olite aldean harrapatu zuen, Arantzazuko egonaldien tartean. Han, gogoz kontra eta beste fraide batzuekin batera, eliz-misioak frankisten alde borrokatzera behartu zuen. Ikasketak, fraidegintza eta bizi-apetak derrigorrean utzi arazi ondoren frentez-frente alde batetik bestera ibili zen gerra amaitu bitartean. Horrela ezagutu zuen bizitzaren sufrikarioa, etsipena ekarri

² Xabier Letek «garo-usaia» deitu zion 60ko hamarkadan egin zen teatro kostunbristari erdeinuz, Jazinto Karraskedok 1936an idatzi zuen *Garo-Usaia* antzeztanari erreferentzia eginaz. Karraskedoren antzeztanek Txomin Agirreren *Garoa* izan zuen inspirazio. Bestalde, Salvatore Mitxelena *Erri bat guruzbidean* eta *Confixus* antzeztanetan ere *Garoari* erreferentzia zuzena egin zion, hango Joanes pertsonaia bere oholtza gainera ekarriz.

³ «Santutegiko kristau herri giroa inspirazio iturri emankorra izan zen berarentzat. Euskal Herriko bazter guztietatik erromes taldeak biltzen ziren Andre Mariaren aurrean otoitz egitera. Erromesaldien giroa erabat euskalduna eta gehienbat euskaltzalea zen liturgian bezala elizatik kanpoko atsedenealdian ere». (Unzurrunzaga 2002:7)

zión mundu krudel eta gordina, bizi artean bihotzean txertatuko zitzaion mina. Orduantxe guztiz erroto eta sendotu zitzaion, lehendik ere zintzoro gordetzen zuen euskaldun herriarekiko maitasuna, bere beste kide batzuekin batera.

Eta gerraren hasiera-orduko txorabioa ta zalaparta hura (...) pasa zanean, gu beltzak ez ginala konprenditu ginukanean eta gu zurien taldean ere —sermoi ta anatema guztiak arren— goxoki ezin gindezkela bizi ikusi eta gero, maitasun erromantiku hura, bihotzetako berotasun hura, estimatasun hura, azi ta haunditu egin ukan gure talde hartan. «Aberriak min dit» esaten, orduan hasia ginukan Mitxelena ta izen horrekin bataiatutako poesi-xorta egiten ere bai. (Agirretxe 1970:123).

Urte eta historiako gertakari ahazgaitzak bizitzea egokitu zitzaion Mitxelenari, testuinguru urakanatuak zizelkatu zizkion bere nortasuna eraikitzeko irizpideak fraide idazleari. Haur-nerabezarotik barrendutako Amarekiko eta Arantzazurekiko (euskara, Euskal Herria eta kristau-fedea) eraspina izan zituen bere identitatea (bere *ni-a*) eraikitzeko aldagai nagusiak. Iñaki Aldekoak dio (2008:224), «...Errepublikaren garaiko poetek Amaren irudi sinbolikoan jarria zutela espiritualtasun guztia. Tradizio poetiko horrek emakumetasunari darion samurtasun amatarrarekin identifikatzen dituela sinbolikoki hizkuntza, baserria, Ama Lurra, aberria». Mitxelenak Ama huraxe Arantzazun kokatu zuen eta santutegiko giro herrikoia, bertako Ama Birjinarengana otoitz egitera gerturatzen ziren euskaltzaleena zen Mitxelenaren gotorlekua. Amatasun horren babesean eta gerraosteko pairamendua arindu nahian, Elizaren mantopean saiatu zen bere pentsamoldera gerturatutako ekintzak burutzen Mitxelena, helburu zituen nahiak gogobetetzen; baina arerioak etxean zituen. Euskalduna gorde zen Elizan, euskal kulturaren gotorleku bihurtu zen Eliza gerraostean gune batzuetan —Arantzazu eredu horien artean⁴, euskaltzaleen lubaki—, baina fededunen artean ere hegemoniak hegemonia, eta botere eskuindar frankistaren eskuin-eskua izan zen Eliza katolikoa. Arantzazun bertan, hortaz, gerraosteko lehen urteetan, eta apaizgaien artean, gizarteko beste esparru eta taldeetan bezalaxe heterogenia zen nagusi, gorriak, beltzak eta zuriak han ere⁵. Huraxe izan zen Arantzazu Mitxelenarentzat: ama, etxea, fedea, tradizioa eta traizioa, eta lubakia. Nahasmen

⁴ Antzezlanean dramagileak Arantzazu euskaldunek zenbat maite zuten adierazi zuen, erromesaldiei erreferentzia eginaz. (4. egonaldia): «Komisariak: *Salió la palabrita que no podía faltar. Aránzazu! Aránzazu! Y por fin, para colmo, Lurdes! Trenes y trenes. Domingo tras domingo. Todo el mundo a Aránzazu. ¡Qué se abre la frontera, y a Lurdes! ¿Y cuándo al Pilar?*»

⁵ Honela dio Aldekoak (2015:32): «ez dezagun ahaztu, beste leku askotan bezala, Franco paliopean hartu zutela Arantzazuko fraideek 1943an, eta santutegia euskal kulturaren Montserrat bilakatzeko prozesua luzea izan zela». Eta Villasantek (1977:14) ere, oroitzapenen artean jasoa dauka Mitxelenarekin Arantzazuz hitz egindakoa: «Oroitzen naiz behin, teologi ikasle ginela, Arantzazutik aurrez aurre dagoen harkaitz hartara joan ginela. Hango ikuspegi ederra ikusten gaudela, hara hitzetik hortzera zer ateratzen zaion: «Hemendik begiratuta komentu horrek paradisu zoragarri bat dirudi.... Ez luke inork esango kartzela bat dela»... «Zer ari haiz esaten?», erantzun nion. Eta berak: «Bai, zuk esango didazu neri!...» gaineratu zidan zorrotz; eta isildu ginen denok.

hartan, seminarista gazte ilustratu gogobizikoen artean ernaldu zen etorkizuneko euskal nortasunaren defentsa⁶.

Testuinguru horretan kontraesanez josiko dira euskal fededunak. Espainiako Eliza Katolikoaren eta Vatikanoren jarrera kriminalak ez dituzte ulertuko⁷. Kendu egin zizkieten askatasuna eta eskubideak. Kendu egin zioten euskaldunari izateko eskubidea, eta fraideak bere antzezlanean zerrendatu egin zituen eskubide ukatu guztiak, gertatukoa irakurleen artean, han eta hemen, zabal zedin, munduak gertatutakoa jakin zezan (10. egonaldia):

Mixiolariak: «Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituzte». Leen bi seme zaarrenak. Orain beste biak. Kendu semeak. Kendu fueroak. Kendu soiñekoak. Kendu jabetasuna. Kendu Erritasuna. Kendu izen ona. Dana berentzat.

Zaldun leengoak: Kendu fueroak eta berentzat fuero zale izena.

(...)

Leenengoak: Kendu euskera eskoletatik, elizetatik, banduetatik, bataio izenetatik, umeen dotriñetik, baita kanposantuetako illarrietatik ere...

(...)

Leenengoak: Kendu Unibertsitate bat badare gurean izateko eskubidea...

Bigarrenak: Ta gero «kultura, zibilizazioa, dakarkizutegu basatiarro».

Leenengoak: Gernika zalea genduan gure soiñeko nabarmenena. Kendu orixe ere ta berentzat artu.

(...)

Leenengoak: Kendu, galarazi Guruzbidea ere. Ez dugu zillegi geure Miña zeruari aidatzerik. Aidatzekotan, ez geurea, besterena, etsaiarena.

Bigarrenak: Ta gero: «Izan zaitzte katoliko».

Euskal fraideen ustez, kristau ebanjelioak zioena ez zetorren bat Erromako Elizak hartu zuen joerarekin eta ez zuten jakin nola jokatu burugabekeria haien aurrean; ahotsik gabe eta fedearen eta errealitatearen aurrean deslaituta, galdu-

⁶ Agirretzek (1970:124), Mitxelenaren kideak, honela idatzi zituen Arantzazun bildu ziren fraide anaien artekoak: «Gerrako ibilaldietatik etxeratutako mutilak, gehienak; zaharrak, biguntasun gutxikoak, eztabaidarako gogotsuak. Mundua zurien eskutan betirako jarri zala kredoa bezalaxe sinisten zutenak ere ba itukan gure artean. Eta lagunarteko hartu-eman hango ikasleen artean ez zirala beti karidade-bidetik ongi joan, aitortu beharra zegok. Gure herri osoa, giltzapean zanpaturik zegon bitartean, guk inoiz baino Herri horren zaleago ta semeago ikusten ginukan gure burua. Gure lagunartera zetorren guztiak euskal-arnasa beharrezkoa zikan bere bihotzean ez-ezik, bere hitzetan ere bai».

⁷ «Estatu frankistaren eta Vatikanoren arteko konkordatuaren (1953) ondorioz, katolizismoaren balore eternalen defendatzaile leial agertu zuen bere burua Espainiak. Hala, Vatikanoko II. Kontzilioa puri-purian zegoela, Bilboko apezpikuak (Gurpide) Unamunoren aurkako pastoralara argitaratu zuen. Esan gabe doa, katolizismoaren barruan, Espainiakoa zela Elizarik atzerakoiena». (Aldekoa 2015: 28)

ta, sentitu ziren gerraosteko lehen hamarkadatik aurrera, eta bizipen hark piztu zion Kristoren eta euskaldunaren guruzbidea erkatzeko ideia Mitxelenari. Sentimendu huraxe, amorrua eta lege zaharrarekiko lotura 12. egonaldian azaleratu zituen autoreak:

Batzuk: Bi anaiak il? Fusillatu? (Joanesen bi semeak)

(...)

Batzuk: Joanes! Joanes gizajoa! Ara berriz!

(...)

Joanesek: «Barka... zaiezu... ez bait dakite... zer egiten... duten».

Leenengo zaldunak: Nun da ba, nun? Nun da gure Obispu ori, oraindik ez erantzuteko? Gurea, gurea Obispua? Utzi gaitzala pakean eta dijoala bere errira.

Bigarrenak: Ez omen dik betarik guri erantzuteko. Izaten dik ba naikoa, Gobernadorearekin egoteko. Baitare onen asmo doillorrenei amen ta amen erantzuteko. Baitare gure apaiz jatorrenak sakabanatzeko, emendik ara ta andik auskalo nora.

(...)

Ferminek: Eta Erromak berak... noiz itzegin du Erromak berak itzerdi bat gure alde? (...)

Irugarrenak: Konbeni izan balitzaio, itzegingo zian ba...

(...)

Irugarrenak: A zer arrazoia zuen Unamunok, arrazoi itzala alere, odolekuoi otsegitean: Jetxi zaitezte mando gaiñetik! Utzi zazute klerikalismua. Klerikalismuak, obispukeriak, galdu zinduzten karlistetako gerrateetan. Orretxek galduko zaituztee berriz eta berriz ere.

(...)

Aitona zaar batek: Etzazuela galdu gure zaarren sinesmena. «Etzazutela egin,...»

Antezlaneko zati motz honek laburbiltzen ditu Mitxelenaren ideia ugari. Jesusen hitzak dakartzki gogora, eta baita aitona zaharraren ahotsean arbasoekiko transmisioari eusteko eskea, erlijioarekiko fedea gal ez dadin, eskea. Eta nabarmen eta itzulungururik gabe, gotzaiaren eta Erromaren jarrerei kritika egingo die.

Salvatore Mitxelenaren pentsaera eta bizimoldea askatasun ezak eta Elizaren debeku zurrinak baldintzatu zituen garai historiko hark. Ia bi hamarkadaz libertatearen apetan eta antsian Euskal Herrian eutsi ostean, Ameriketara alde egitea erabaki zuen⁸, autoerbesteratzea, debeku zein neurri zorrotzen eremutik

⁸ Agirretxek (1977, 63-64) erbesteratze hura nola zuen gogoan idatzi zuen: «1954. urtea zela uste diat, Eibarren biok misio bat eman ginukan San Andres parrokiari. Gure hitzak ez hitukan

ospa egitearren. 1954an joan zen Ameriketara eta bertako bederatzirri herrialdetan zehar ibili zen misio eta sermoilari lanetan. 1962an itzuli zen Euskal Herrira, herri-primariak gailenduta⁹. Orduan, oraindik ere Euskal Herrian zegoen giroaren gordinkeria berrikusita, Suitza aldera abiatu eta denbora gutxira hil zen han, 1965an.

Salvatore Mitxelena idazle emankorra izan zen garaiko idazleen artean, 1949-1956 urte bitartean argitaratu baitzituen honako lanak: *Arantzazu Euskal Sinesmenenaren Poema* (1949), *Ama Semeak Arantzazuko kondairan* (1951), *Ogei kanta Arantzazuko* (1952), *Arraun eta Amets* (1956), *Unamuno eta Abendats* (1956). Azken hau erbestean idatzi zuen eta *Euzko Gogoaren* saria irabazi zuen¹⁰. Lehen hiru lanak erbestera aurretik Arantzazuko Fraideen argitalerietan¹¹ argitaratu zituzten, Arantzazuko Amari eta Euskal Herriari zion debozioa gai zutela¹². 1949ko lehen liburu haren *Bizi-nai* izeneko kapitulu bat zentsuratu izan zen, 1955ean *Euzko Gogoak* argitaratu eman zuen arte. Zentsuraren erruz Euskal Herria gaitzat zuten bere beste lanek ere ez zuten paperean argirik ikusterik izan berandura arte. 1977an argitaratu zituzten bere *Idazlan guztiak*, *Editorial Franciscana Arantzazuk* eta *Jakinek* elkarlanean. Eta aurretik iritsi ziren irakurlearen eskuetara, aldiari aldiari *Aberriak min dit* (1937-1943), *Aboz*

nonbait baten batentzat atseginak izan. Eta hor zihuak Donostiako agintariengana salatari bat. Eta gero gerokoak. Mitxelena aspertu ukan horrelako loturak bere hitzarentzat han-hemenka ugaritsu ikustean. Eta Ameriketara joatea erabaki dik. Nik hamaika aldiz erabaki horren kontra hitz egin arren, hark berea egin zian. Horretan uko egin nitxeukan beti. Mitxelenak etzikan inoiz ere erabat alde egin behar hemendik».

⁹ «Politika giroak, eliz giroak, fraide bizitzeko giroak, denak ematen zion min. Ustez eta Ameriketara joanez barnea lasaituko zitzaioela, hara joan zen; baina ez. Bakoitzak berak berekin badaramatzatzi arrangurak, hoik tokiz aldatzearekin ez dira izkutatzen». (Villasante 1977:14)

¹⁰ Unamuno eta Mitxelena bera protagonistak dira liburuan, saiakeran idatzitako Unamunoren pentsamoldearen defentsaren argudiaketa da liburua, belaunaldi berriagoko pentsalari eta idazleek goraiatu zutena. Hona hemen Txillardegik (1970:62) saiakera liburu hartaz esandakoak: «Iheskeria horietatik aldatu nahi dugula adierazten duelako, euskera euskaldunen mintzabide izatea nahi dugulako, pozzgarri izan zaigu arras saiolaritzaren jaiotza. Urte askotan! «Unamuno eta Abendats» liburua guzuzt zaigu itxaropenez betetako zantzua. Salvatore Mitxelenak bide zuzena erakutsi digu».

¹¹ Arantzazun *Bai* izeneko taldeko kide izan zen Mitxelena, eta era klandestinoan aldizkari bat argitaratu zuten, eskuz esku santutegian bertan banatzen zena: «Orduko Arantzazuko ikasle euskalzaileok talde bat osatu genduan: BAI taldea, alegia; Lizardi zanaren “Itz lauz” liburuko artikulu batzuen ideiak jarraituz. BAI izeneko errebistatxoa ateratzen gendun euskeraz, makinaz kopiatuta. (...) Etzan errega ordun gauza oietan ekitea. BAI taldekoak Mitxelena genun gure gidari ta auspo-emalle. Bera zan gure maixu ta nagusi euskera kontuan. Gu baño askoz gorago ikusten genun bera, bai olerkigintzan, bai itz lauz idaztean. Gauza politak egin zitun BAI taldeak. Beiñola, antzerki saio eder bat ere bai “Arantzazu”ri buruz. 1943’garren urtean zan. Arantzazuko Ama Gipuzkoako Zaindari izendatu izan zaneko 25 urte-urrena ospatzen genun. Ta antzerki-saio bat egitea otu zitzaigun. Bera izan genun ordun ere gure gidari, bere itz lauzko lanekin, bere olerkiekin, bere erti-lan ederrekin». (Iturria 1966:59-60)

¹² «Pedro Rocamora Director General de Propaganda izan zen 1945etik 1951ra bitartean, eta Zarautzen igaro ohi zituen udako oporrak. Gizon honi esker atera ahal izan ziren euskarazko hainbat liburu. (...) (Mitxelenaren) *Arantzazu* poemako sinbolismoa ezin zitekeen izan zentsuraren gustuko. Eta Mitxelenak berak poemaren bigarren entrega ere zentsurapean atera ondoren, hirugarrena, *Bizina*, kanpoan aterako du, aurretiaz jakinda ez ziotela hemen onartuko». (Torrealdai 2000:85)

abo (1944), *Guruzbidea* (1955), *Erri bat guruzbidean* (1940-1950-1958) eta *Confixus* (1960-1962)¹³. Bost lan hauetatik lauk (*Aboz abok* ezik besteek) tematika bera dute, pararelismoz josia dagoen eta aurrerago maiz errepikatuko den *Guruzbidea*: 14 egonaldidun Kristoren guruzbidea, Pasioa, hau da, euskaldun herria jasaten ari zen sufrimendua. Horixe izan zuen bere antzezlanaren bertsio guztiak idazteko gaia, kezka eta asmoa; haren azkena izango zen maisulana idazteko nahia.

Halere, aipu bat ekarri nahi da hona, bai baitirudi Mitxelenak, lan haeuz gain, beste antzezlan bat idazteko asmoa ere izan zuela noizbait, asmotan geratu bazen ere haren gogoia:

Beste lan batzuk ere ba zitun Mitxelena'k gogoan eta asmotan. Beste drama bat Ona ta Gaitza gai arturik eta Euskalerrriaren gaurko egoerari egokituta. «Bidade: bide bi tarte» edo izango zukean titulua drama orrek. Gaia pentsatua ta sakonduxea zun karta batean esaten zidanez. (Iturria 1966: 61-62)

Barne eta kanpo erbestea bizi izan zituen, beraz, Mitxelenak. Gerraosteko lehen urteetan Euskal Herrian bizi izan bazen ere, ukatu egin zizkioten sermoiak, hitza eta literatura. Zentsuratuak izan ziren bere adierazbideak. Halatan, atzerrira alde egin zuen arerioen jazarpena itzuri nahian, baina han erbesteko ezaugarriak eta minak nozitu zituen, barne-bakerik bilatu gabe, beste euskaldun eta elizgizon ugariaren antzera.

Erbesteratuak itzal iluna darama jitez bere baitan, erbesteratua bere lurraldean galtzaileen arteko kide izan ohi baita. Erbesteratua horrexek bultzatuko du bere herritik aldentzera, bere etxetik urruntzera; menderatua izanik, ihes egin eta bizimodu seguruago, askeago edo hobe baten bilaketak. Desterratu daiteke norbait bortxaz heriotzetik hanka egin behar izateko; edo Mitxelenaren kasuan bezala, alde egin daiteke herritik borondatez testuinguru politikoak eragindako errepresioaren ondorioz. Erbesteratuari herrimina dario; herrimina dario berea den komunitateari, kulturari eta tradizioari heltzeko bidea baitu berau. Bizitzan zehar eraiki eta garatutako nortasuna bizkarrean harrotasunez darama desterratuak. Ondotxo dakizki euskaldunak zein diren bere harrotasunak, eta hauek ditu helduleku lurralde berrian, oraindik eraiki gabe dituen balioen faltan. Euskaldun topikoa zintzoa, langilea eta umila omen zen —Joanesez *Garoan* irudikatzen duen euskalduna—, eta umiltasun hori izan zuen harrotasun euskaldunak nortasunaren eraikuntzan. Euskaldunaren definizio horixe euskaldun langileek botako dute antzezlaneko 2. egonaldian. Eta, aldi berean, euskaldun izatearen zailtasunak ere apatu zituen testu zati honetan dramagileak.

Nekazari batek: Ez ditek esango beintzat, bere aldean zintzoak ez geranik. Etzigutek oiek irakatsiko elizarako bidea. Eztare geure lanetik bizibearra.

¹³ Torrealdaik (1970:81) honako hausnarketa txikia egin zuen argitaratu gabe ziren haren lanen inguruan: «Eta, beharbada (kritiko ez naizen honek zalantzan utzi behar iritzia) Salbatoreren lanik hoberena, argitaratu gabekoa duzu. Salbatore bera, gorputz eta arima, ezagutzeko eta haren gaiari pultsoa hartzeko, ez da dudarik, ezkutuko obra honetan murgildu behar duzu».

Olagizon batek: Ots, ots, erakus deigutela beren lurraldeetan gurean aiña fabrika, gurean aiña lansoro, gurean aiña eliz, gurean aiña langille, gurean aiña gurutze...

Arrantzale batek: Non?, non?, gurean aiña galerna!!!

Mixiolariak: Gurean aiña apaiz-praille.

Zaldunak: Guretik aiña mixiolari.

Iñakik: Guk aiña limosnagite.

Prudenek: Guri aiña pertsegitze.

Nekazariak: Guk aiña Eliza Amaren aginduak gordetze.

Olagizonak: Guri aiña zerga ta kontribuzio lapurtze.

Mixiolariak: Guzia, guzia gurutze!

Itxaropentsu, existentzia hobea da erbesteratuen gogonahi orokortua; aldiz, bidean herritar bakoitzak norberek ditu esperientziak, oinazeak zein dramak, gertakariak eta zoria, eta beti zama izango du herritartasuna. Ezaugarri hauek guztiak berekin zeramatzan Mitxelenak Euskal Herritik alde egin zuenean. Eta ezaugarri hauei, erbesteko euskal literaturak erresistentziatik idatzitako (eta argitaratutako) lanen ezaugarri nagusia gehituko zaie: hizkuntzaren eta euskalduntasunaren biziraupena¹⁴. Hilzorian zen euskara ilunpetik ateratzen saiatu zen, hortaz, Mitxelena, beste garaiko erbesteko idazleek egin bezalaxe¹⁵. Baina ez nolanahi, atzera begirako biziraute hari kutsu pedagogiko-morala, herriarekiko atxikipena eta itxaropena, eta kristau fedearen aldarrikapen zintzoa ere gehitu zizkion nabarmenki bere literaturari, bere *Erri bat guruzbidean* antzezlanari. Hona hemen antzezlaneko 13. egonaldian autoreak idatzi zuena:

Mixiolariak: Jaun-andreak: ikusten zaudete. Kristo gurutzetik eratxi ta Ama Doloretakoaren magalean ipiñi zutenekoa oroitzea tokatzen zaiguneko ontan, orra Joanes... Neronek ez dakit, egia esan, gorputz dagoan ala ez Dolorosaren altzoan. Geu ere geu ez dakigu bizirik utziko gaituzten ala ez, Erriko agintarien sumin argaiztoa ontaraiñotu dan ezkerero. Ez jakin gure atarramendua!

(...)

Mixiolariak: Ez dakigu, Ama, ez dakigu, ildako Erri bat geran, ala oraindik bizirik dagoana. Dakiguna, besteez madarikatzen gaituzten ala bider, Zuk magalean artzen gaituzula. Eta magal ori, magal ori! bizirik naiz illik, gure Bizitza du, ta gure Gozoa, ta Itxaropen bakarra...

¹⁴ «Euskal literaturaren historia, gerra zibilaren hasieratik Frankoren diktaduraren bukaera arte, erbesteko literaturaren historia da: biziraupen-literatura kanpoan eta erresistentzia-literatura barnean». (Lasagabaster 2003:37)

¹⁵ Euskararen biziraupenerako lanean erbestean eta antzerkiaren ingurumarian aritu ziren autore eta itzultzaileen izenak hemen: Bingen Ametzaga, Andima Ibinagabeitia, Antonio Maria Labaien, Bedita Larrakoetxea, Telesforo Monzon, Martin Ugalde, Jokin Zaitegi.

Mitxelenak maitasunaren bidean eraiki zituen bere ibilbidea, existentzia, literatura. Alabaina, zentzu guztietan maite duenak sufritzen omen du eta, zauria desilusioan zabaldu zitzaion: aipatu ditugun gerra, Eliza eta estatu espainiarren jarreraz gain, egoera haren aurrean politika giroan euskaldunen artean sortu zen sakabanaketak ere mintzen zuen idazlea, baita nazioarteak —Nazio Batuen Erakundea tarteko— Euskal Herriarekiko izan zuen utzikeriak eta humanismo ezak ere¹⁶. Haiek guztiek eman zioten min Mitxelenari. Eta gai horiexek izango dira, min horren funtsezko arrazoiketak, autorea *Erri bat guruzbidean* idaztera eramango dutenak.

Torrealdaik (1970:6) Mitxelena jotzen du «gerraosteko euskalminaren adierazlerik nabarmen eta fidagarrienatzat» eta Euskal Herriaren bidegurutze (eta guruzbide) horretantxe egingo dela idazle dio, biziki sentitu zuen krisi hark bere idaz-bizitza guztia bideratu zuela zehaztuz. Eta gaineratzen du: «Mitxelenaren euskaltasunaren bidean arrosak baino arantzak gehiago ez ote ziren nago. Lanak ditu euskaltzale izateak. Orain zaila bada, askoz ere nekezagoa zen garai baten». (1970:97). Torrealdairen hitz hauok Mitxelenaren testuko 9. egonalditik eratorritakoak direla dirudi:

Mixiolaria: Arrazoi bai Joxemingok. Tema bat da, erokeri bat dugu, guruzbidea. Suizidio bat gure zintzotasuna, gure euskaltasuna, gure eozkorra. Errezago litzake etsitea. Noski baietz errezago. Noski baietz probetxugarriago. Lanak ditu kristau izateak! Lanak, «vae victis»-pean (ai, garaituak!) euskaldun irauteak!

Zaldun batek: Euskotarrok ogei milloi bagina, ez liguteke esango gure seta erokeri danik. Milloi ta erdi besterik ez gerata.

Hauek kontuan hartuta eta min tragiko horretatik idazten duenean Mitxelenak, literatura modernoak ekarri zuen existentzialismorantzako joera dakarkio gogora irakurlari, barne bidaian baitabil dolorearen bueltan, garaiko testiguruak eragindako barne-gatazkan. «Kondenak nunaitik... Negarra noiz

¹⁶ Xabier Apaolazak (2003:14) erbesteratuen egoera aztertu zuenean, euskaldun erbesteratuek nazioarteko mugimenduak nola bizi izan zituzten azaldu zuen, herrira itzultzearekin amets egin zutenen ezinegona nola hazi zen, gertaera politikoek itxaropena zapuztu ostean: «Gerra Zibila galdu zutenek zenbait mito sortu zituzten: mundu libre, estatu demokratik, mendebaldeko baloreak, anglojajoiak eta zibilizazioa; honekin batera Atlantikoko Kartaren eta Nazio Batuen Erakundeko adierazpenen gaineko fedea, edo Churchill, Roosevelt edo De Gaullerenganako konfidantza. Baina erbesteratuei latza egin zitzaion zetorkien historia eta honekin batera Francoren erregimenak bertan behera egingo zuelako kontua eta ondorioz, ustezko berehalako itzultzea. Nahimenak, zapuztuak gelditu ziren; gain behera ziren etorkizuna eta egitasmoak; zer esanik ez, bihotza, hori ere zenbait erori baitzitzaion. Izan ere, besteak beste, 1950eko urrian, NBK baliorik gabe utzi zuen Espainiarekin harreman politiko-ekonomikoak ez izateko agindua; 1951eko urtarrilean Espainiako gobernuarekin Ameriketako Estatu Batuek harreman diplomatikoak hasi zituzten; 1951an berriz ere FAOk kidea da, eta UNESCOn sartzea eskatzen du; 1953an Vaticano eta Estatu Espainolaren artean konkordatu sinatu zen; 1953an, hau da, urte berean AEBk eta Espainiak hitzarmen militarrik sinatu zituzten; 1955ean Espainia NBK kidea da. Honela bada, Espainiako egoera politikoa erabat onartua izan zen nazioartean».

buka? Kondenak nunaitik... Negarra noiz buka?» kantatzen du 8. egonaldian. Horrexegatik, Salvatore existentzialista dela defendatu dute kritikoeak. Esaterako, Xabier Mendigurenek dio (2003:169) «bitalismo eta barne-borroka horretan ikus daitezkeela existentzialismo aztarnak». Halere, bai Mendigurenek berak (2003:170), bai Aldekoak (2008:225), Salvatore Mitxelena existentzialista bere modura dela defendatzen dute. Izan ere, bigarrenak dionez «nekez elkar daitezkeelako, hark egin zuen bezala [...], Unamunoren gisako existentzialismo tragikoa Vatikanoren II. Kontzilioa baino lehenagoko Eliza katoliko ortodoxoarekin».

Jainkoa ukatzen dutenez existentzialistek, eta bateraezinak badirudite ere bi ideioek, Mitxelena testuingurura egokitu nahian, desilusioetatik abiatu arren, loturak egiteko gai izan zen eta antagoniko diruditen ideiak nolabait bateratzea izan zuen helburua bere literaturan, askaera bitalista eta eraikitzailea gaineratuz. Gizarte talde euskaldun oso baten agonia izan zen urte haietan fedea eta herria bateratuta defendatzea. Gatazkatsu eta lokaztia izan zen nortasunarekiko aldarrikapena. Gorrotoaren eta traizioaren gainetik, nihilismoan jausi gabe, existentziari zentzua aurkitu nahian, irtenbide argitsu bat bilaltzeari ekin zion, batasunean sinestu eta itxaropenari muin eman zion. Il ere, ilko dute, baiña piztu ere... PIZTUKO DA! — dio Joanes protagonistak 7. egonaldian—. Mitxelenak, literaturaren bidetik, euskaldunen batasuna alderdikierien gainetik defendatu eta dramari irtenbide bat bilatu nahi zion. Gurutzea izango zuen irtenbide horren sinbolo, objektuak oinazea irudikatzen badu ere bidean, hark adierazten baitu amaieran etorkizuna ere. Mitxelenarentzat, berpiztearen irudi izango da gurutzea.

Euskal historia kalbario bezala interpretatzeak, historia negargarri honi sentido bat aurkitzen laguntzen dio Mitxelenari. Gurutzebidea beti ondo bukatzen da: Berbizkundean. Pesimismo ilun guzti haren barnean, beti dago optimismo argi bat, ilundia baino bortitzago. Gurutzeak berpizkunde esan nahi du. «Berpiztea amets». Euskal historia, hondamendi eta heriotze bide ordez, esperantza bide bihurtzen da. Gurutzebide. «Ta guruzbide bakoitza, biztubide». (Azurmendi 1977:44)

Halaxe amaituko ditu bere lanak fraideak —baita *Erri bat guruzbidean* ere—, hala eraikiko du bere ni itxaropentsua testuinguru aldrebes hartan, eta bai bakezaletasuna, bai gudari sen kontrajarriak, elkarreraginean txertatuko ditu, aurrerantz bizi nahian¹⁷.

¹⁷ «Ez diat uste Mitxelena inoiz gizon zorionsua izan zanik. Zorion bila asko ibilia bai. Ba zekin ilusio asko bururatzen ere. Halaxe aspertu ukan hemengo Euskal Herri txikiarekin eta irten ukan hemendik, itxasoz-aruntza bere izakera egon-ezin hura lasaiago ta obetoago arkituko zalakoan. (...) Indepentzi-zalea ukan oso. Estrutura itxi-itxiaren etsai. Gaur bizi izan balitz, "progresista" porrokatu hoietako bat izango zala, sinistu. Berrogei urte beranduago jaio izan balitz, etzikan harek sufritu zuan guztia sufritu izango». (Agirretxe 1970:128).

III.- ANTZEZLANA, TESTUINGURU ZEHATZ BATEN ERRETRATU GISA

3.1.- Teatrokeran idatzitako *Erri bat guruzbidean*

Erri bat guruzbidean teatrokeran idatzitako Salvatore Mitxelenaren antzez-lana da, Euskal Herrian zela idazten hasitakoa (1940) eta erbestean zela amaitua (1958). Zatika idatzitakoa dela esan genezake, beraz; hausnarketa eta denbora eskainitakoa. *Erri bat guruzbidean* antzerkia antzerkiaren barruan irudikatuz, Ostiral Santu eguneko kristau prozesioaren bitartez, Kristoren Pasioa eta euskaldunen kalbarioa kontatzen duen 14 egonaldiz osatutako obra da. *Erri bat guruzbidean* frankismo osteko euskal pentsamolde baten erretratu literarioa da, erreferentzia frankoz josia datorrena, euskal erbesteko literaturaren ezaugarriak betetzen dituena baina hauei aurre hartu nahia eta begirada positibo berritzailea gehituko diona, Salvatore Mitxelenaren bizi-kezka nagusi guztiak azaleratzen dituena. *Erri bat guruzbidean* teatro kodean idatzitako erbesteko pentsamolde existenzialista eta fededun baten erretratu soziologiko-teologiko-politikoia da.

Izenburutik hasita islatzen du Mitxelenak bere agonia. Bere bi maitasunak (Herria eta Fedea) uztatzen ditu Euskal Herria deskribatzen duen errepresentazioak, nekaldia irudikatuz baina fedearrekiko atxikimendu estua agertuz. *Erria da guruzbidea*¹⁸.

Bi aipamen idatzi zituen izenburuaren atzetik dramagileak. *Jakingarri* edo argibide batzuk, pertsonaiak eta obran zehar emango diren doinuen zerrenda datoz, ostera. Obrak *Sarrera* luze bat du 14 egonaldien aurretik. Hauok Kristoren Pasioko 14 egonaldiak dira: 1. *Eriotz epaia*, 2. *Gurutzeari laztan*, 3. *Lehenengo erortzea*, 4. *Ama bidera*, 5. *Zirenekoa*, 6. *Beronika*, 7. *Bigarren eroria*, 8. *Emakumeei itzegiten*, 9. *Irugarren erortzea*, 10. *Billotzik*, 11. *Arizgurutzean edo Confixus*, 12. *Gorputz*, 13. *Amaren magalean*, 14. *Illobian/Ta bukaera*.

Bi aipamenekin hasten du bere jarduna autoreak, esan bezala, eta Unamunori erreferentzia zuzena egiten diete biek, filosofo kuttuna baitzuen bilbotarra. Fede eta hizkuntza kontuetan ados ez bazeuden ere, gertu sentitzen zen frantziskotarra Unamunoren pentsakera sakonetik. Ikusmira humanistaren zutarriari sentimendua eta tragikotasuna habetuko zaizkio, bizitzari lotuko zaio, egia absolututik urrun, norbanakoa izatez barrura begirakoa da, gorputz eta arima. Fede eta abertzaletasun kontuetan filosofoaren joerekin guztiz bat ez bazetorren ere, haren ikuspegi filosofikoak liluratu egin zuen Mitxelena eta antzezlaneko lehen aipua filosofoari erreferentzia eginez hasi zuen. Honela laburtu zuen obra sarreran: *Azken mendeko Euskal Bizinaiaren «sentimendu trajikoa» dramaturkeztekoa izlaur, kantuz eta Pasio irudiz*. 1936ko gerra ondorengo oinazeaz gain, aurrez Euskal Herriak zekarren historia iluna ere gogoratu zuen, eta esaldi bakarrean erreferentzia egin zien Unamunori, euskal historiari, guruzbideari eta baita amaierako bizi-nahiari ere.

¹⁸ Aurreraxeago honela kantatuko dute guruzbidari eta publikoak, salmuz, txandan, 1. egonaldian: «Agur, Mindun Ama, / Seme gaitzekoa; / Zazpi ezpatadun, / zazpiontzakoa; / Eusko Pasioak / Miñagotzekoa, / «Onatx zure seme» / Ordez artzekoa».

Setimendu tragikoa eta kataklismoaren historia antzezlanaren oinarrian bada dira ere, azken-azkenean bizi-itxaropena dario Mitxelenari. Bizi-nahia eta aurrera begirako asmo eta gogoia adierazi izan zituen, existentzialismo lainotsuari zentzua emanaz. Itxaropen honek belaunaldien arteko zubia eraikitzen lagundu zuen, lehenaldia eta herrimina gogoan bizi zituztenen gogotik hasi eta etorkizunerantz asmoa jarria zutenenganainokoa. Zera entzuten da, antzezlanean *etxebarrutan* 14. egonaldian: «“Areitza zaarrak Areitza barri”, Gernika dugu legea».

Bigarren aipuak zuzenean Unamuno pentsalariaren *Del sentimiento trágico de la vida en los hombres y en los pueblos* liburuari egiten dio erreferentzia: *Un Miserere*¹⁹ *cantado en común por una muchedumbre azotada del destino vale tanto como una filosofía* (Unamuno 1928:23). Aipu honetan ageri zaigu Mitxelenak bere euskal oinazea guruzbidearekin erkatzeko antzerkia genero literario hautatua izateko azalpena. Hemen da Mitxelenaren arrazoia, taldean kantatu behar da patuak²⁰ erabakitako sufrikarioa, herriak kantatu behar du bere mina, galtzaile da herria eta samin hori ozenki adierazi behar zaio munduari. Miserereaz Kristoren heriotza nola, Euskal Herriaren heriotza ere berdin abestu behar da. Kantu kolektibo horrek²¹, komunitatean egingo denak, mina munduaren aurrean agertaraziko du²², eta beste ezerk baino indar gehiago izango du. Horra hor Guruzbidearen zama beste generoetan idazteaz aparte, antzerki forman idaztearen arrazoia. Norengan eragin lezake antzerkiak? Liburu soilak baina oihartzun zabalagoa izan dezake? Taldean sortuko da antzerkia, taldeari aurkeztuko zaio ekintza, eta herriak hartuko du parte. Aurrerago pertsonaien atalean argituko den bezala, antzerkiaren barruan antzerkia kokatzen duenez, ikusle diren pertsonaiek kantatuko dute mina, entzule-diren ikusleek sentitzen dutena, edo jakin beharko luketena.

Halere, antzerki egitura idatzitako obra hau irakurtzeko soilik idatzitakoa dela argitu zuen Mitxelenak lehen *Jakingarrian* bertan. Antzerkia bai, baina irakurtzekoa. Ekintzaren motelaz eta *literatura* gehiegikeriaz jakitun zela dirudi. Asmoak bidean geratu zitzaizkion, beraz. Izan zitekeen zentsuraren eta argitaratzearen zailtasunak zirela medio, izan zitekeen haren poesiarako joera-

¹⁹ Aste Santuan kantatzen diren *maitine* bereziak.

²⁰ Patuaren ideia jaso zion Unamunori hemen Mitxelenak, agian San Agustin filosofoak zioen modura, Jainkoaren gogoak baino, mina gizakiak sortuko baitu bere bekaizkeriak eta botere-nahiak bideratuta. Antzezlanaren zati honetan (1. egonaldia) argi azaltzen du autoreak erruduna ez dela Jainkoa bera: «Mixiolariak: Kondenatuak daude gure gauzak: mintzaira ta guruzpide, sentipen, pentsakera ta izakerak. Nork kondenatuak? Ez noski gure Manuk (alguazila). Bearko bere enpleoari eutsi, ogibidea aterako badu. Ez noski Jaungoikoak. Berak egin bait gindun euskaldun eta sortu zizkigun maitasun joranok. Beste batzuk dira kondenatzen gaituztenak: «Kaiser beste erregerik ez dugu nai» otsegiten duten oiek, oietxek».

²¹ Herri bezala kantatuko duen kolektiboa da honakoa, euren ahotsa taldean emango duena eta antzezlanean zehar pertsonaien artean herri ahots horri maiz erreferentzia egingo zaiona, koru grekoa.

²² Hori du berak nahia, Euskal Herriaren mina lau haizetara hedatzea. Zentsurak eta distantziak argitalpena debekatu bazioten ere, gaztelarera itzuli zuen antzezlanak, eta hau bada bere gogo eta asmoen seinale. (Ikus *Confixus* antzezlaneko 5. *oarra* edo artikulua honetako *Confixus* atala).

gatik. Baina, dena-delakoa ere, baimena eman zion autoreak bere buruari jende kopuru, jolasa eta baliabideak askatasunez maneiatzeko, iruditegiak agintzen zion huraxe idazteko. Eta hala ere, antzerki forman idatzi zuen testua, antzerkia antzerkiaren barruan jokatzeko horrek oso ondo funtzionatzen zuelako bere nahiak azaleratzerakoan. Joxe Azurmendik horrela adierazi zuen (1977:30) «*Erri bat guruzbidean*, teoriarik behintzat, antzezteko idatzia da; baina teatro simulatua bezala dugu. Fantasia batzu, teatro antzera. Bistan bait zegoen, inoiz antzezterik ez zela egongo. Beraz, antzezten dela edo antzeztu litekeela imaginatuaz, irakurtzeko duzu (herriak noiz barre egiten duen, etab., abisatu egiten zaigu). Destinatariorik jakin bat falta zaiola esango nuke». Zailtasun horien guztien jakitun, antzerkiaren mugak eta aukerak behar bezala ezagutzen zituela adierazita, hala ondu zuen gerora antzezteko egokiagoa zen *Confixus* antzelana urte batzuk geroago.

Andik urte batzutarra beste idatzi bat eskuetara zitzaidan monjatxo baten bidez. Berak bialdutako «*Erri bat guruzbidean*» idatzia zan. Ederra benetan drama ura! Eskudero maixuak drama orri musika jartzea zan bere irrikarik biziena. Ameriketarik itzuli zanean joan gintzaion Eskudero'ri bere etxera. Azaldu zion Mitxelena'k Eskudero'ri berak zeukan itz-jario biziakin dramaren muiña. Zoratuta gelditu zan Eskudero ta opera moduzko poema zoragarri bat egin zitekiela esan zigun. Eskudero, lagun maite: noizpait ikusi bear ote degu zure lan orri? Ba daki— zu zure ta nere lagun maite Mitxelena'ren gogo betekoa izango zana... Ekin zaiozu alako batean... Ni onera etorrita gero, «CONFIXUS» izenarekin zerbait aldatua bialdu zidan drama. Sakona ta zoragarria! Orain Caracas'en bizi dan Ibinagabeitia'tar Andima'ren eskuetan egon bear du, neronek emendik bialduta. (Iturria 1966:61-62)

Jakingarrien sailera begira jarrita, irakurlea kokatzeko espazioen banaketa zehazten da: Oholtzan behar dute *ezpaloiak*, *estratuak* eta *beiralekuak*. Espazio guztiak irakurlearen iruditegian aldi berean koka daitezten. Eta *Aritz Arbola gazte eta liraina* erdian, obra osoaren bizkarrezur eta sinbolo, gurutzea eta herria irudikatuz. Kalbarioa deitu zaio sufrimenduari, 14 egonaldiko Pasioari, baina bizitzaren arbolan gurutziltzatuko dute Joanes, antzezlaneko pertsonaia nagusia. Heriotza usaina izango du gurutzeak, baina bizitzaren arbolan bertan berpiztu egingo da euskalduna. Salbatoreren gurutzearen sinbologia guztia Aritzan oinarrituko da. Eta aldi berean, Aritza Gernikako Arbola bera da. Harritza da antzezlanaren muina, Euskal Herria bera. Euskaldunaren batzarleku eta elkargunea agoniaren objektu da, tragediaren esentzia eta bizi-nahiaren gorputza, zutabea, euskaldunaren heldulekua. *Aritz Arbola*, *Gurutz Arbola*, *Aritzerrri*, *Arizgurutz*, *Arizguruztatu*... izen ezberdinez aipatuko du. Honela mintzo da Mitxelena antzezlaneko 11. egonaldian:

Mixiolariak: (Joanes Nazarenu Arizguruztuari beira) Gurutze ta Aritz: biok, bat bat zaituztegu. Ez dakigu bat maitatzen bestea gabe. Eztare bat ukatzen bestea ere gabe. Gure kristautasunaren Gurutza! Gure euskaltasunaren Aritza! Aritz eta Gurutz! Arizgurutz!

Nortzuek zer izenez, gerora, pertsonaiak aurkeztuko ditu autoreak. Zerrendan dira gerraosteko erretratua era kostunbrista batean bistartzeko honako izateak: *Mixiolaria*, Salbatoreren petsamoldea hitzetara ekarriko duen euskal fededuna. *Joanes «Garoa»ko uraxe*, obrako protagonista eta euskal profeta dena, euskaldun zintzo-eredugarria eta Euskal Herriagatik bizitza emango duena (azkenean salbatuko dena). Joanesen seme artetik bi, gudan elkarri kontran aritu ziren *erreketea* —*Pruden*— eta *gudaria* —*Iñaki*—, euskal sendi anitzetako gerraosteko gaitza. *Belarrimotxa* izango den *Komisaria* falangista eta bere laguntzaile euskaradun *Joxemingo*. *Mister Hamilton*, munduari errealtatea azaltzeko ezinbestekoa den kazetari estatubatuarra. *Manu Alguazilla*, *erriko gizajoa*, inozentziaren ahotsa, eta *bi guardiazipil ez gaiztoak*, euren lana bete besterik egiten ez dutenak.

Pertsonaia hauez gain, obra irakurtzekoa denez, Mitxelenari otu zitzaizkion beste pertsonaia eta pertsona-talde agertzen da antzezlanean: *Pasaran egokitu-tuko direnak* (horrela definitu zituen berak): Ama Doloretakoa, Beronika, Loidi, Bentura, Erroke, Batista, Lertxundi, Fermin... Bestetik, banako izendun pertsonaiez aparte, nabarmeneztekoak dira Unamunoren *muchedumbre* herritar horien boza hedatzeko proposatutako pertsonai-taldeak: batzuk, bat, besteak, emakume batzuk, lehenengoa, bigarrena, irugarrena, denak, guruzbidariak, publiko osoa (prozesioa ikusten ari den publikoa), zaldun bat (lehenengoa), Zaldun bat (bigarrena), langillea, asko/danak, nekazari bat, olagizon bat, arrantzale bat, korua, gehienak, jendeak, abots indartsuen bat, giza ardailla, erri-otsak, koruan bat, koru beteak, gehienak, aitona zaar bat, laugarrena, etxebarrutakoak... Herriaren ahotsa dira, Greziako teatroko korua, anonimoak izan arren masaren eta euskaldunen nahi eta pairatzei boza jarri zietenak.

Arreta Joanes protagonista nagusian eta Mr.Hamilton pertsonaian jar dezagun hemen. Salbatore Mitxelena bi belaunaldien arteko zubia dela esan da, erbesteratu lez euskararekiko eta euskalduntasunarekiko herriminean bizi izan zelako eta atzera begira horretan mina eta biziraupena zeriolako. Garai eta oinaze-sentimendu horren guztiaren erretratua Joanesek beteko du antzezlanean²³. Txomin Agirreren *Garoa*ko Joanes da gorrotoak jokabidea lausotuko ez dion euskaldun fededun eredugarria. Fede horrengatik eta fede horrekiko atxikimenduari esker lortuko du zoriona, bere nortasun euskaldunari eustea, harro eta itxaropenik galdu gabe (Joanesek lortuko du euskal itxaropena biztea *Erri bat guruzbidean* obraren amaieran). Toledo Lezetaren hitzetan (1999:136), on eta

²³ Honela mintzo da Joanes euskal historia kontatuz antzezlanean 5. egonaldian: «Bi euskal partidu nagusien Alkartzte irudia bear du izan onako aurkezpenak. (...) Gazterik alargundu. Zazpi seme-alaba txiki. Aziko banitun, neure bakarrez baliatu bear. Jaungoikoak ala nai ta, bikaiñak atera nitun. Zazpiak. Sendo ederrak, lau mutillak. Polit maitagarrienak, iru nexkak. Arro nintzan zazpiekin. Aguro itzali ziran (tristetuz) nere arrotasunak. Zuek dakizute gerokoa. Zertan konta? Bat edo bestek: Segi, Joanes. Segi. (...) Gerratea sortu. Lau semeak txoratu. An joan zitzaizkitan, Laurak. Berriotxoa eta Iñaki, alde batetik. Xabier eta Pruden, bestetik. Bi zaarrenak, antxe akabatu, bata bestearen kontra. Bi urrengok, alako batean, gerra bukatuta etxeratzean, alkar ezin ikusi. Aita zaarrak ordun sufritu zitunak! Arrezkero dut nere biotzeko anjiña. Nere kontsolu bakarra iru alabatxoak ziran; aiek beintzat poliki ezkonduak bizi ziran alboerrian. Dagoneko, ordea, pozik bizi naiz. Bi semeok beintzat adiskidetu zaizkit.

txarraren arteko ikuspegi manikeo bitarra nagusitzen da Joanesengan eta baloreak unibertsalak ditu, alde batekoak ala besteakoak, iraunkorrak eta betiko zoriona ekartzeko bidea erabakiko diotenak. Hala eskainiko dio euskaldun arimarik ederrena egile ahaltsuari Joanesek. Eta hori guztia irudikatuko du obran Joanesek, herriminez Salbatorek atzera begira umetan ezagutu zuen euskalduntasuna, etxearekiko eta familiarekiko lotura sendoa eta balio zintzoetan hertsia zen giro fededuna. Euskal Herria irudikatuko duen gizona da Joanes.

Halere, gizartea beste norantza batean esnatzen hasia zen dramagileak anitezlana amaitu zuenerako. 60ko hamarkada hastera zihoan hartan, historia eta bizi-gertaeren ondorioz euskal arbasoen eta mendebaldeko baloreak erori egin ziren, ordura arte iraunkor eutsitako balioak nihilismora jausi eta berriak asmatzera bideratu ziren. Mundua etengabeko mugimenduan murgildu zen eta teatro zaharrari *garo-usaia* zeriola zioen mugimendua esnatzen hasia zen²⁴. *Jarrai* antzerki talde abangoardista orduantxe Donostian, lehen entseguetarako bildu zen. Euskaldunaren begiak mundura zabaldu ziren —erbesteak izan zuen horretan zeresana eta globalizazioaren ideia ere hedatu zen gizartean ordurako—. Bide horretan zubi-lanak egin zituen belaunaldi oso bat lanean aritu zen, Mitxelena tartean, eta euskal gatazkaren berri mundura eman beharra zegoela aldarrikatu zuten. Artekaritza eta iraupena izan zen urte haietako iraultzaileen eginbeharra eta zeregin horren premia-jakitun izan ziren euskal frantziskotarrak. TIME aldizkariak 1952an Arantzazuko fraideak elkarrizketatu bazituen, euskal gatazka, fraideen euskalduntasuna eta frankismoaren eta komunismoaren aurrean euren ikusmoldea nolakoa zen azaltzeko izan zen, *sekta* itxurako orbain txikiaren existentzia ezagutzera emateko. Salbatore Mitxelena beraren aurpegia argitaratu zuten ale hartako azalean²⁵. Sekta hitza Mitxelenak berak darabil antzezlanean:

Mixiolariak: Txiki gaituzu, Jauna, Baionatik Bilbaora, itxas baztertxo ontan. Bai txiki lurraldez, demografiz. Are txikiago noski euskaltasunez, izkuntzez, etorkizunez. Aberri gabeko abertzaleok, ontantxe batezere somatzen gera txiki: euskaltasunez, izkuntzez, etorkizunez. Euskaldunok, eliz teatruon bezela nunaiko eusko urietan, sekta bat dirudigu. (9. egonaldia)

Gatozen berriz pertsonaietara: Mr. Hamilton kazetari estatubatuarra da, United Presseko korrespondentsala. Euskal Herriaren ahotsa, mina eta errealitatea frankisten zentsuraren debekurik gabe lau haizetara ezaguarazi dezakeena. Gerra garaiko pertsona eta gertarako historikoen erretratua egiteaz aparte, Mitxelenak begirada aurrera luzatu nahi izan zuen horrela, etorkizun amestua irudikatuz: amerikano *yankiak* euskaraz ikasi zuen, euskaraz mintzo zen, euskara ludiko hizkunta ondradua zen. Mitxelenak bere hizkuntzari eman nahi liokeen

²⁴ Xabier Letek Zeruko Argian elkarrizketatu zutenean, 1965an, hala definitu zuen euskal teatro kostrunbrista, teatro zahar bezala.

²⁵ «Joxe Azurmendik kontatuta,(...): Mitxelena Hego Amerikara joan ondoren, hasieran bere asmoa hori ez bazen ere, batetik bestera ibili zen sermoilari, hainbat ordena erlijiosoren artean eratutako misioetan, kristautasuna indartzeko bezainbat komunismoaren hedapenari aurre egiteko. Estatu Batuek kanpaina hori bultzatu eta txalotu zuten, eta Time aldizkariak erreportaje bat eskaini zionean, Salbatoreri egindako argazki horixe jarri zuten azalean». (Mendiguren 2003:154)

toki huraxe eskaini zion argazki errealista irudikatu nahi zuen lan fikzionatu hartan. Atzera begirako herriminean bizi izan zen Mitxelena, baina bazuen berritasunarekiko interesik, bizitzari aurrera zerraion eta etorkizuneko sinbolismoaren eta existentzialismoaren tendentzia euskaldunei atea jo zien²⁶. Eta amestu egin zuen, progresioarekin amestu zuen, iraunkortasunaren kontra. Mr Hamilton eta bere jarrera moderno, ireki, eraikitzaile eta itxaropentsuarekiko aitortpena izan zen horren eredu. Horixe zen Salvatore Mitxelena, bi belaunaldi, bi bizimodu, bi pentsamolderen arteko lokarri: lehen euskaldun fededun existentzialista (Mendiguren 2003:153). Barne-ametsen hedadura zabalaz kontziente, hegan egiteko aukera murrizten ezagutzaile. Pentsamendu hauek guztiak laburtuta 14. egonaldian kontatu zituen Salvatore Mitxelenak:

I Guardiak: *Atención, señores. Orden del Señor Gobernador: (...) ¡Se disuelve el Vía Crucis!*

(...)

Mr Hamiltonek: *What's this? What's this? Zer da au!?* Dana utsik. Ezta inor txo ere plazan. Brebiari ta kuadernu biotxok bakarrik. Auxe dana kanposantu. Benetan illerri. Il-Erri!

(...)

Mr Hamiltonek: Zer pentsatu bear nuan nik! Erri txiki onek onenbesteko drama ederra! (Kuadernoari so) *Lastima!* Euskeraz dago. United Press-ekoek ez didate ulertuko. Kristauegia da, gaurko munduak sinistu dezan. Erri txiki batena da gaiñera, gizadiak kasu egin diezaion.

(...)

Mr Hamiltonek: (Irakurriz) «Itxaropena dugu Fedearen Ama; ta Fedea..., Aberri Egunarena».

(...)

Mr Hamiltonek: Onu..., Erroma..., BBC France Presse... United Press..., zertan goaz, Urlia baten liburura, «kristianismuaren agoni» billa? Atozte ta ikusi. Agoni ori onatx emen, emen!, bere iturburu jatorrenean, beste iñun baiño bikainago, Urlia orretxen Erri osoak bizia: etsipen ta itxaro, frakasu ta garaipen, ilnai ta bizinai... Baiño ez. Ez etorri. Alperrik zendukete etortzea. Gaurkoz, ez daukazute ulertzerik Euskal Animaren guruzpidea. Ezta entzuterik ere. Jakiterik ere ez badanik. Bizi arazten diotenen ez diote uzten kantatzen! Bizi arazten diotenen ez diote uzten kantatzen!

Antzezlaneko partaideak aurkezu atzetik, Mitxelenak doinuei egin zien lekua antzezlanean. Musikarekiko joera eta gustua izan omen zuen Mitxelenak «—musikazale ere bagenuen— asmatu du eta eratu kanta ederrik franko,

²⁶ «Mitxelena muga-mugako autorea dugu. Ez guztiz gerra aurreko eta ez guztiz gerra ondoko; ez guztiz A eta ez guztiz B. Beraz, Orixek bere alderdira eraman nahiko du eta Villasantek berera, esate baterako». (Azurmendi 1977:36)

bai bait zekien zein kantazale den euskalduna» (Azurmendi, 1977:37). Obrara ekarritako kantak eta doinuak xehetasunez aukeratu zituen, zehaztasunez. Guztiak bere gai nagusiei erreferentzia eginaz: euskaltasunari eta fedeari. P.M. Otañoren *Aita-Semeak*, *Pilatosek esan du*, *Josirik ikustean*, *Miserere* Salmu doiñua, Arantzazuko ereserkiaren *Agur zeruen edertasuna*, *Gernikako Arbola*, Aita Donostiaren *Salvatore gora da!*. Bitxia da, bestalde, garaiko liburuetan oso ohikoa zen bezala, aurreargigarrietan doinuen idazkera —kasu honetan partiturarik gabe: nota bakoitza dago hizkiz idatzita (goiko ala beheko *zortzidunen* berri eman gabe; puntu eta marra bezalako sinboloek markatzen dutela erritmoa...)—. Honez gain, antzezlanean zehar herriak maiz bertsotan abesten du, euskal konposatzaileak aipatzen ditu —tartean Eskudero bere herrikidea—.

Erri bat gurzubidean antzezlanak Euskal Herriko hizkuntzen erretratu ere izan nahi du. Mitxelenaaren literaturak darabilen hizkuntzaren trataerak eman du zeresanik, gaztetandik barneratua zuen euskara zeriolako orokorrean Euskaltzaindiako urgazle ohiari. Haren aiurria etorkizunera jarri nahian ibili zelarik, ahozkoa gerturatuko zen hizkuntzaren erabilera aldarrikatu zuen, esateko zuen hura herriarenganaino irits zedin. Halatan, antzerki kodean hizkuntza herrikoa erabiltzen saiatuko da, ahozkotik idatzizkotik baino gerturago zegoena, idazki dramatizatuari gehiago letorkiokeena; baina, halere, hizkuntza aberats eta zaindua dagio antzezlanari, are, egungo ikuspuntutik begiraturaz gero. Beraz, bada saiakera bat ahozkoa gerturatzekoa, baina literatura narratibotik eta lirikotik ere asko du antzezlanak, hala baitagokio tematikari. Are gehiago akotazioetan, zehaztasun eta xehetasun askotxo aurkezten baitu hauetan, antzerki kostunbristari jarraiki. Joxe Azurmendiren ustetan (1977:34) «Mitxelena gipuzkera arruntaz baliatu da beti, sarri lokalismo herstuetan eroriaz (...). Baina, gipuzkera gainditu, osatu, nahirik ikusten dugu, gero eta gehiago, euskara batuaren premia ezaguturik». Hein batean, euskara batuaren premiaren jakitun izan zitekeen Mitxelena, eta baieztza daiteke gipuzkeraren erabilpen formalala landu zuela bere antzezlanean²⁷.

Azpimarratzekoa da, horrez gain, antzezlanean hizkuntzaren forma ezberdinen erabilera, hizkuntza ezberdinei dramagileak egiten dien erreferentzia, gizarte heterogeneo baten erretratua eginaz: hitanoaren, zukaren eta berorikaren presentzia euskaraz; horrez gain, latina klasikoaren, gaztelaniaren, frantsesaren eta ingelesaren erabilera. Pertsonaia bakoitzak du bere nortasunetik, ezagutzatik eta kulturatik; bakoitzak du komunikatzeko eta mintzateko bere modua eta aukera-sorta zabala da. Erlazio motak distantziak txikitu ala handitu egiten ditu harremanetan. Eta hitz-kodeak errealitate hartako harremanen adierazle dira, erretratu kulturartekoa egiterakoan. Komunikatzeko moduak irakurritz ezagun dira orduko ideologiak, maitasun eta gorrotoak, mendetasun eta adeitasunak.

Hizkuntza guztiak dira garrantzitsuak Mitxelenarentzat errealitatea antzerkiaren bitartez agertzen saiatzen direnean. Alabaina, euskaltasuna aitortzerakoan euskaldunen arteko kezak, eztabaidak, beldurak eta sinesmenak

²⁷ Esamolde eta adibide asko zerrenda daitezke, baina ausaz baten bat aipatzearren: *balinbaite*, *dasaizuet*, *zazaaka itz egin*, *guruzpide onetxek atera bear du bikaiñena*, *erakus deigutela*, *euskaldun paisanuz jantzirik agertu*, *aziko banitun neure bakarrez baliatu bear*, ...

euskaraz azalduko ditu, euskalduntasuna hizkuntzatik haratago doala defendatu zuen arren. Diglosi egoera muturrekoa zen une hartan, euskaldunen arteko bata-suna eskatu zuen Mitxelenak bakera bidean, itxaropena ardatz zuela. Aurrekaria izan zen ideia horretan fraidea. *Unamuno eta Abendats* (1956) saiakeran hala idatzita utzi zuen eta gerrak suntsitu zuena berreskuratu nahi izan zuen. «Euskaltzale, ez zeritzaion euskararen zaleari bakarrik, “euskal arimaren” zaleari baino. Beraz, Unamuno eta beste “erderaz jarduteak”, ere elkartasunean nahiko ditu...» (Azurmendi 1977:54). Ideia honi berari ere leku egin zion antzezlanean autoreak 2. egonaldian:

Zaldun zaar batek: (... Unamuno berbera dala antzeman bezaio publikuak:...) (...)
«*O es que todavía quieren hacer españoles a palos?*»

Komisariak: *¡Vaya-vaya! ¿También usted? Ya me lo parecía a mí. Vasco al fin y al cabo. Un separatista más, y de los peores, camuflado de intelectual.*

Gerrak suntsitutako txatalak batu nahi izan zituen berriz Mitxelenak, bate-ratasuna aldarrikatuz. Aurrekoen ohiturak eta ikaskiak teatro kostunbrista bidez landu zituen, ordea, eta hortaz, antzezlanari ezaugarri eta elementu konstunbristak darizkio. Herriko kontuak eta gizatalde baten eguneroak kontatu zituen, ohitura eta *fiesta* tarteko. Hori guztia, herritar onaren errebeindikazioa eginaz, Joanes buru. Idatzi dramatikoan, heldu egin zien gerraurreko usadioei forman eta kontaktetan, baina aldi berean, folklorismo eta autoktonalismoei aurre har-tu nahi izan zien, haiek kritikatu eta ikusmolde aurrerakoi humanistagoei leku eginaz²⁸. Antzezlanean honela dio Mr. Hamiltonek sarreran: «Ta ara: Euskal Animaren ezaugarri jator jator bat nai nuke. Euskal drama jator jator bat. Opera batzuk aitatu dizkidate. Tituluak ementxe ditut. Bildur naiz, ordea, beren funtsa zearoko autoktonu ote dan (...)». Mixiolariak horrela dio 10. egonaldian, berriz:

Mixiolariak: (...)

Onen billotzik nai al ginduzun? Egin bedi zure Naia! ... Oroz erantzi gaituz-ten ondoren ordea, Jauna, orain zenbait arlotekeri jantzi arazi nai dizkigute: «romeria vasca» diralakoak, burrua ta abarka, tabernetako aiurruntzi ta jane-dan apostuak, radioetako fandango ta «bilbainadak»(...)

Usandizaga eta Aitzol gogoratu zituen, eta aldi berean United Press, BBC eta ONU presente izan zituen.

Baina, batez ere, gizartearen isla eta erretratu da antzezlanak, tragedia baten kronika da, eta Mitxelenak kontatu egin nahi izan zuen gertatutakoa, horre-tarako zerrendatu zituen datu zehatzak antzezlanera. Apaiz fusilatua; gerrak akabatutakoen, zaurituen, erbesteratuen zenbakiak...Guruzbidea bizitu zuen euskaldunak Mitxelenaren garaian, eta autoreak erreferentziak gordeta utzi nahi

²⁸ «Euskal arimaren hiru etxe barruko etsai ezin zituen jasan batez ere: folklorismoa, oportunismoa eta intransigentzia edo sektarismoa. Azkeneko honen ondorioa, elkarren arteko borrokak eta ezinikusiak, batasun falta, aparte ikusiko dugu. Eta hiruron kontra, radikaltasuna (euskal arima!), zintasuna eta tolerantzia/batasuna predikatuko dizkigu». (Azurmendi 1977:49)

zituen gertatutakoa fizkiotik baino errealitatetik gertuago zegoela adierazteko. Horrela dio 3. egonaldiko pasarte honek:

Mixiolariak: Ea ba, Erroke, irakur itzazu, Euskadi aldetik eroriak, elbarrituak, espetxetuak, langille batalloietara eramanak...

Errokek: Ildakoak, gudari ta zibil: 50.000

Larriki elbarrituak: 49.000

Kartzelatuak: 34.550

Konzentrazio kanpuetara edo langille batalloietara eramanak: 52.000

Oraindik erakutsi behar da, erbestera sakabanatutako euskotarrena.

Oek: 150.000

Orra ba, guzira: 335.550

Mixiolariak: Irureun ta ogei ta amabost milla! Gure martiriok. Gure eroriok. Gure onenok. Ezaitzuztegu aazturik. Euskotarrok ozta gaituzue milloitxo ta erdi. Alare, alderdi bakarretik, gerrate bakarrean, bai martirolojio ugari ederra, Askatasun alde jausiona! Irureun ta ogei ta amabost milla boluntari. Ezin ziteken oparago azaldu gure Erriaren borondatea. Ez da alperrik izango zuen odola.

Eta horrela, berriz, 6. egonaldiko zati honek:

Komisariak: *Y usted, Padre, no se crea seguro. No olvide que fusilamos 14 sacerdotes vascos, 4 de ellos los tiene en el cementerio de Hernani, sin cruz y sin sufragios, como perros en una fosa común. ¡Ja, ja, ja! ¡Sacerdotes vascos! ¡Qué dos términos incompatibles! ¿Sacerdotes? Sin la «sa»: ¡cerdotes!*

(...)

Mixiolariak: Egia da. Egia da. 14 apaiz dizkigute fusillatuak. Obispu Jauna ere, gure Mujika maitea, erbestera bidali. 446 apaiz-praille, presondegi eta atzerrietan. Egia da. Fusillatutako apaiz aietakoxe bati, Aitzol aundiari ain zuzen, asesinatzerakoan, aoa lokatzez bete zenioten, erreztatu etzezan. Ta, gero... katoliko omen dira. Ez jakin doakabeok, galazi arren ezpafiñetako errezoa, eztagoala galarazterik biotzetakoa; debekatu arren kaleetako guruzpidea, ez digutela debekatzerik etxe barruetakoa...

Baztertuek baztertutako jendartearen ageri da antzerki-lan honetan: agoteak, esaterako, eta jendarte honen jazarpenak pertsonaia sinboliko bihurtzen du Euskal Herria bera. 3. egonaldian koruak honela kantatzen du: «Erri agotak barkapenik ez eskubiar ta andikitan». 10. egonaldian berriz, «Zure ederrez jantzi gure uri ta mendi! Zure graziz jantzi kristau ta sendi! Zure izenez jantzi agota au: Euskadi!» Euskal Herria agoteekin konparatzen du hemen autoreak. Badirudi, euskaldunen lekua aurrez historiak agote haiei eskainitako beratzat zuela Mitxelenak, Villasantek kontatzen duenez (1977:14-15):

Behin Arizkunera joan zen (...) hango mojej Ejerzizioak ematen, (...). Orduan hurbildik ezagutu ahal izan zuen Agoteen kasua: (...) eta geroztik askotan Agote hoiek aipatzen zituen euskaldunen irudi bezala. Euskal Herria eta euskaldunak, horra herri Agota, arraza madarikatua, zapaldua, menderatua, hiltzera kondenatua...

3.2.- Testuaz bi aipu, autoreari hainbat gomendio

Ez dira asko izan *Erri bat gurutzean* obrari buruz egin diren hausnarkeak eta aipuak, horrexegatik ekarri da gaia orrialde hauetara. Hasieratik esan da autoreari buruz idatzi izan direla artikulua eta iritziak, baina orrialde bakanen bat besterik ez zaiola eskaini antzezlan bera ikertzeari. Esan dituzten aipu horietan badira leku berezia eskaini beharko litzaieken idatzi pare, informazio berria eskaintzen dutelako eta oraindik aipatu ez direlako. Hasteko, antzezlanak autorea izan zuen garrantzia soma daiteke hurrengo hitzetan, Mitxelenaren hil aurretiko ekintzetan. 1977an bere lan guztiak argitaratu zirenean *Aintzin solasak* hala zioen (Zenbaiten Artean 1977: I, 15):

Salvatore Mitxelenak mixiolari ihardunen arteko atsedendietan, 1940garren urtean hasitako «Erri bat gurutzean», buruan zerabilen aspaldiko gai mingarri eta borrokalariari ekin zion, txukun eta txukun lanez: badira hiru-lau kopia, gain eta albo oharrez eta zuzenketaz beteak. 1958garrenean buruturik bezala, baina argitaratu ezina, Suiza-ra eraman zuen. Hil baino hilebete lehenago, Zaurtza etorri zen, gaisorik, atsedea pixka bat hartzera: orduan, Agustina, kuttunena zuen bere arrebari gordetzeko utzi zion; eta Suitzarakoan, esan zion, hiltzea gerta balekio, Probintziko Aita Nagusiari emateko. (...) Obra garratz eta gordina, ikusiko duzunez. Obra honekin batera, gai bera erabiliz, «Gurutzean» (1940-1955) eta «Confixus» (1960-1962) utzi zituen argitaragabe.

Ondorengo lerrootan, bestalde, Mitxelenak bere lagun idazle eta adituei antzerki obra bidali ostean, haiengandik jaso zituen kritikak zerrendatzen dira (Iturria 1977: 175):

J. Artetxek, esate baterako, hauxe idatzi zion: «Nun egin dek au? Ni zearo desengañatuta niok nere erriakin. Ez diat sinisten nere erriagan... Ala ere, esperantzarik gabe, alegindu egiten nauk. Ezta alperrik izango zuen odola. Egia ote?... Barkatu akiok, fedea, nere erriaganako fedea, ziara galdu diat. Ala ere nere erria maite diat... Beste epoka batean, entusiasmatu egingo nindukean obra onek; orain berriz... Oztuta niok, eta ala ere, azpian ziok sua... Baño ez diat sinisten». (...). Koldo Mitxelenak, gramatikazko zuzenketa batzu egin eta ez zela gramatika zale esan ondoren: «Galdetzen du birao ez oten dan XI eta XII-garren egonalditako aurkezketari. Baita ere zalantzan artzen ba ote dun heroetasunik Bizkai-gudak, olako aunditasunik Euskal Agoniak, zer ota dan Euskal Anima»... Labayenek: «Erlijo ta abertzale naasketa ori, gogortxo. Kontakizun geiegi. Or ez dago "ekintzarik". Ken illen numerua-ta. Etsai izenak alda». Zumalabek: «Benetan bete nau». «Erri bat»ek «gehiago». Etxaidek: «Ez

du goitasunik. Ez poesirik. Idazlan aberkoiek nekez erti-baliorik. Azkenean: “arinki irakurri dut”». Oteitzak: «(Negar eta guzi). Lenbaitlen argitara. Ez gaitzela kanpoko topa! Kendu bukaera (Pizkundera). Utzi bukatu gabe. Sabindar konzepzioa». Agirretzek: «Latiñezko testuen naaste-borrastea. Ori kristautzerik ez bai-litz». Gaztelu-Urrutiak: «Naaste-borrastea gogorretsi».

Mitxelenak testuaren gaineko gomendioen eta zuzenketen ostean izandako buruhausteak ere ekarri zituen paperera Iturriak (1977: 175-176), *Erri bat guruzbidean* antzezlanaz aritu zenean:

Ba da, ez biraolari bakarrik, baita deabrukeria bat dela esaten dionik ere. Er-ligio gaiak politikarako erabiltzen dituela eta. Baina gero horrek berak: «Nere osabak ala sentitzen du. Erriaren sentipena zeazki artzen duan magnetofoni bat da, errian bertan sartuta». Puntu honek eta obraren egiturak zeharo kezkatua zeukaten gure Salbatore. «Biraota ote? Sakrilegioa?», galdetzen dio bere buruari. Baita hau ere: «Teologuentzat oarra: biraorik ba ote». Eta gero, egiturari buruz: «Elkarrizketak obeto lokarritu, bata besteai eragin... Tarte-ahalpaldiak fabordonetan? Latiñak euskeraz?... Lehenengo egonaldiak ez du emoziorik». Antzematen zaio, antzeman, nolako burruka gogor eta lantzean ibiliko zen. Berak ere Kalbario astuna pasa behar...

Eta bukatzeko, Mitxelenak antzezlanaren idatzi zuenean egindako kopia kopuruaren berri eman zuen Iturriak aipatutako idatzian:

Non edo non esan dugu bere obren laupabost kopia ateratzen zituela, lana ez galtzarren, eta batari eta besteari erakustearren. Hementxe ipintzen digu sei kopia atera zituela, bat Andimarentzat (Ibinagabeitia-tar Andima zena), bigarrena Azpiazu apaizarentzat, hirugarrena Arantzazurako (Iturria-rentzat), laugarrena Tere eta Miren-enentzat (nortzuk ote?), boskarrena Koldo Mitxelena eta Escudero maisuarentzat, eta seigarrena Mitxelenak berak gordetzeko. (Iturria 1977: 176)

IV.- CONFIXUS

Antzezlanaren bertsio berritua da honakoa, 1960-1964 urte artean ondua. *Erri bat guruzbidean* antzezlanaren bertsio laburtu bezala deskribatua izan da, baina, batez ere, oholtza gainera ekartzeko idatzia izatea du bereizgarri. Mitxelenaren lehen antzela hari literatura gehiegi eta ekintzetan motz gelditu izana leporatu bazitzaion, hutsune hura betetzera etorriko zen bertsio berri hau. Hori izango du zeregina: oholtza gaineko ekintzaren jarduna. Oinarrian, argumen-tuan eta legatuan osagarri berberak ezaugarritzen badute ere.

Kristori guruzbide natzaio esanaz hasi zuen moldaketa berri hau autoreak, aurrez hirugarren pertsonan egindakoa orain hasiera-hasieratik lehenengora ekarriaz. Joanes hura baino orain ni, herritarra, euskaldun anonimoa da protagonista. Moldaketan aipua *euskal bizinaiaren sentimendu trajikoa* beharrea, *Euskal Agoniaren guruzbidea* izango da zuzenean, kalbario zen hura desespe-

razioan eroriko baitzen urteek aurrera egin ahala. Baina, bestalde, zentsuraren beldurrik gabe idazten zuen ordurako dramagileak, itzulinguruka ibili beharrik gabe. Gordin datoz hitzak bertsio honetan. Labur eta latz. Urteen poderioz etsipena areagotu egin zitzaion, egoerak okerrera egin baitzuen. Itxaropenik bada obraren amaieran oraindik bertsio honetan ere, baina oinazeak azala eta bihotza gogortu zizkion: federeakiko eta euskaltasunarekiko herri sentipenak oso aldatuak baitziren ordurako, bai herrian orokorrean, bai seminarioetan ere.

Gaineratuz, Ostiral Santu egunetik Larunbat Santura egin zuen salto obrak bertsio honetan, hilik da dagoeneko profeta, egina du bidea, ez dago atzera bueltarik. Prozesioa eta ikuskizuna egitatuko dira herrian, oroimen modura, baina ikuskizuna kontakizun-pasarte bihurtu zuen Mitxelenak. Aitzitik, berpiztea gerturago da.

Teatroan eta plazan ere antzelana kokatuko lukeela zioen arren, Mitxelenak antzezlana elizan bertan sartzea gomendatu zuen kasu honetan, eta buruan San Telmo Eliza, zehazki. Unamunoren *Miserereen* inguruko aipua dakar jarraian, berriz ere; bertsioak, autorearen ildoa eta literatur-lana aurretikakoan ardazten dela adieraziz.

Oharrak zerrendatu zituen, jarraian, obra hasi aurretik, *Erri bat guruzbidean* egin bezala. Lehenego laurak antzezleek obra euren menera molda dezatela (luzatu, laburtu, erraztu...) esateko baliatu zituen. Erdal itzulpen baten berri eman zuen ostean, autoreak berak itzulia, Kuban jaso utzi zuena eta gero berreskuratu ez dena²⁹:

Badu erdal itzulpena, egileak egiña, erderaz ere antzeztua izan dedin. Cuban dagonez, orain arte ez da izan eskuratzerik. Zuzenbidea: Paseo 158. Apto. 203. Tel. 305306. Vedado (Habana). Eta hauxe dio autoreak jarraian: Antxe dira, orobat, VII egonaldiko zortziko aundia (Koruak) eta II enekoa (Koruak), testuon ematen danez bestea. (5. oharra, *Confixus*)

6. oharrean argibide garrantzitsu bat eman zuen, bere pentsakera aldarrikatuz eta irakurlearen begien arabera nahasmenik izan ez zedin: «Izen propiok ez dute esan nai iñolare (Santa Kutz, Unamuno, Sabin, Azkue, Zumalakarregi, Gernika, Bergara, lau gudate, karlisteta...), guruzbide au politika auzian oiekin dagonik». Aldiz, gaitzetsi diren pertsonaiekin antzezlanean gatazka, ekintza eta ikuspegi antagonista sortzeko direla azaltzen du, «drama edo trajedi batean bearrik bearrena» bezala deskribatuz. Azken oharretan *Erri bat guruzbidean* idatzi zueneko kezak azaleratu zituen, izan ere, pisua kendu nahi izan zien urte batzuk lehenago, minetik eta amorrutik, hermetikoei adierazitakoei.

Naiz oek eta naiz aiek ditzateken motibu ta alde on eta txarrak erabakitzerik balego, besteren bati legokioke ori, ez beintzat guruzbide apolitiku oni. Alaz

²⁹ Iturriak honela jaso zuen (1977: 174) «Obra honen haseran jartzen dituen ohartxoetan ikusten denez, ba zuen Mitxelenak Cuban erdal itzulpen bat, berberak egina. Eta egonaldi batzuetako ahapaldi zenbait ere bai. Handik irteteen, utzi zituen etxearen zuzenbidea ere ba dakar. Egin ahalak egin arren, ezin izan ditugu tamalez eskuratu».

guztiz, ontan minberatienek ere susmo txarrrik izan ez dezaten, kentzea litzake onena urrengo egonaldiok, osorik edo zatika: III, IV ta VI. Gaiñera, baita beste zenbait ustekabeko esaera, aapaldi eta xehetasun ere. (6. oharra, *Confixus*)

Ez zien ondoren, aurreko bertsoian bezala, pertsonaiei, euren tartea eskaini; bai, ordea, errepikatuko diren *doinuei*. *Sarrera* izeneko atala ere forman eta edukietan zeharo aldatu zuen, misiolari eta kazetariaren ordeztu, *Kristau Fedearen Sinbolu* izango den begi lotuko emakumea jarri zuen protagonista lanetan, eta kantuz eta kuru gisara, pertsonaia anonimoez aurkeztuko dute antzezlanak. Obran zehar ekintza nagusiak errepikatzen badira ere, asko dago laburtuta antzezlanak, pertsonaia nagusiek askoz ahots apalagoa dute eta herriak, *koruak*, *abots ezezagunak*, *publiko osoak*, *gizon eta emakumeak*... dute leku nagusia antzezlanaren moldaketa honetan. Luzeran, erdira laburtu zuen antzezlanak Mitxelena. Urteetan zehar eraldatzen joan den antzerkia da, beraz, garaiari egokiz eta egilearen hausnarketaren bidez.

V.- *ERRI BAT GURUZBIDEAN* GAURKO BEGIETATIK

Orain hamar bat urte euskal antzerkia 1936ko erbestean zer nolakoa izan zen ikertzen hasi nintzenez irakurri nuen lehen aldiz *Erri bat guruzbidean* antzezlanak, eta zitzada jaso nuen, edo arrastoa utzi zidan. Erbestean idatzi zenez, irakurtzeko soilik idatzia zegoelako; antzerkia antzerkiaren barruan gertatzen zelako; sinboloak eta erreferentziak franko eta ondo ekarriak zituelako; garaiko historiaren erretratu bikaina iruditu zitzaidalako. Baina, zail gertatzen liteke agian, gaur egungo ikuspegitik, halako idatzi bat berreskuratzea eta interesdun begiekin begiratzea. Begirada hori gaurkotzeko asmoz ekarri da orriotara antzezlanak, eta aztertu haren interesgunea, garaian kokatuta.

Gure aurreko belaunaldiek, fededun izan ala ez, kristauen ospakizunetako guruzbideak eta prozesioak gertutik ezagutu zituzten. Gure aurreko askoren oroitzapenak maiz lotu dira guruzbidearen pausoekin, egonaldi bakoitzeko gertakizunak eta euren esanahiekin, kristau fedea behartutako festekin; eta hauen hiztegi eta kondairen jakitun dira. Euskal Herriko txoko askok guruzbidearen istorioa gordetzen dute oraindik eta historiak osatuta daude. Bada gure herriaren historia garrantzitsua urtetan Aste Santu bueltan ospatu izan dena. Bestalde, gerraostean Eliza kontuak bizi izan zituzten gazteek eta bide berrien eraikuntzan beste fedezidor bat hartu zutenek, euskalgintzan jardun eta sinesmen zokoak arakatu ostean, euren aukeraketa egin, arrazoitu eta defendatu zuten. Fedezguztatik abiatu baziren ere, norabide berrituak lekukotu zituzten eta haustura gertatu zen. Gerraostean euskal gizarteak bitan banatu zen: herriminetik edan zutenena izan zen bata, etorkizun modernoa eta iraultzailea hobetsi zutenena bestea. Zubi lanak egin zituen Mitxelena, *Erri bat guruzbidean* testua bien arteko lokera izan zen; eta atzera begiraketatik asko bazuen ere, abangoardiaren lehen zertzeladekin batera gerraosteko belaunaldi gazteak antzezlan honi bilatu zion nolabaiteko balioa. Kostunbrismotik asko duen arren, teatro epikorako joera bat ere agertzen baitu. Aurrez artikuluan zeharreko aipuetan bildu diren ikerlari, saiakeralari eta kritikoen obra honen literatur-eskarmentua onetsi zuten.

Gaur egungo betaurrekoak jantzita, berriz, gaurko euskal jendarte aktibo zabalari fededunen kontu haietako asko arrotz zaizkio. Testuingurua horrenbeste aldatu den honetan, galdu dira jakintza erlijioso hertsia, eta haiekin batera, baita bizimodu ziren ohituren erreferentziak ere. Implizituki txertatuta dugun sistema sozialaren erro izan arren, ordukoaz, kontzienteki bederen, eufemismo-rik ere ez dugu jasotzen, jada. Mugimendu humanista moderno post-frankistak ezabatu egin zituen euskaldunentzat ordura arte nortasun estu ziren usadioak, izan atzerakoi, izan totalitario edo zirenak-zirelakoak. Etena izan zen urte gutxiren buruan. Alde batekoak interes politikoa zutelako, beste aldekoak zaharra zen hari kiratsa zeriolako. Aurrera begira jarri ahal izateko, giblelekoa kukuldu egin zen. Agirretxek (1977:52) honela idatzi zuen:

Gu baino lehenago gure Herriaren maisu izan direnak ez dizkiagu ahaztu behar, herrizale jator eta zintzoak izan nahi badiagu. Oraingo gazte askok horretan huts egiten duzuela, uste diat. Zuek munduan azaldu arte ia inor ideal haundi horien alde ez dela nekatu, errazegi pentsatzen duzue.

Belaunaldien talka hau bizi-legea da. Atzera begiratzeak zentzurik ba ote duen zalantzan jartzea bada gaur egungo gaitzetako bat, ordea. Hala zioen Agirretxek ere. Atzera nork eta zeri begiratzen dion hausnarketa filosofikorako gaia genuke. Baina, antzezlanera berriz etorrita, nolatan, Mitxelena ekarri orri hauotara? Bizi-legea ikuspuntuaren antagonia izanik ere, ziztadak eman ohi ditu lehenaldiak. Ziztada hura berjaso dut orain gutxi nahi gabe. Eta transmisio zubi lanak egitea garrantzitsua dela geroz eta ziurrago egonda, euskal antzerkigile Mitxelenaren lanak duen balio literarioa berreskuratzea nahikoa arrazoi badaela sinetsita, guruzbide tragikoa urruneko kontaera izateaz gain, eguneroko bizi-lurralde dela aldarrikatzea dator idatzi hau. Bi arrazoi nagusi ditu atzean: Bata, globala eta unibertuala da, mendebaldeko historian etsipenetik abiatutako kalbarioa itxaropenera bidean egiten dela aldarrikatzen duena. *Erri bat guruzbidean* gure historiaren pasarte bat da, xx.mendeko erretratu esoterikoa hizkuntzaren, fedearen eta herriaren arteko lotura azaltzen duena. Baina ez da bakarra. Historia errepikatu egiten da eta orain 2000ko kristau erlijioak giza-oinazea hamalau egonalditan kontatu bazuen, 2000 urte hauotan historia errepikatu egin da. Askotan. Baita antzerki modura ere. Kalbarioa baita bizi-legea bera.

Garaiak, garai klasikoak, klasiko dira beti, eta historia denboran aldatzen bada ere, antzezlan honetan bezala historiako beste pasarte ugari, berregiten egin da guruzbidea. Kalbario iluna baita askitan gizakiaren historia, errepikatzen den historia; izan kostunbrista, izan existentzialista, progresista ala politikoa. Kristautasunak kontatu zuen *Pasioa* sinboloz bete dator, eta teatroak behin baino gehiagotan jaso du tragedia haren muina, bai kristau fedearen erproduktzio modura, baina baita era ateista batean oinazearen eta bizi-zamaren kalbario erara ere³⁰.

³⁰ «Las versiones de la Pasión presentan con frecuencia una finalidad didáctica, pero no escasean las representaciones que acentúan los elementos paródicos, las que siguen los arquetipos del mito o las que son claramente desmitificadoras. Buena parte de ellas han sido realizadas por autores ajenos a ideologías y creencias religiosas». (Gutiérrez Carbajo 2014:195)

«Recreaciones teatrales de la Pasión» izenburudun artikuluan Gutiérrez Carbajok (2014) guruzbideaz idatzitako hizkuntza ezberdinetako adibideak eta autoreak zerrendatu eta aztertu zituen, gaztelerazkoak batik bat; tartean eta enfasiz bereziz, dramaturgo transgresore bezala definitu izan den José Manuel Corredoiraren *Diferencia sobre la Muerte* (2014)³¹ lana eta hari buruz esanadakoak.

Baina, gurera etorrira, gogora ekarri nahi nuke orain gutxi —2022an— Bilboko Arriaga antzokiak ekoitzi eta oholtza-gaineratutako *Moto-Membra Jesu Nostris* antzezlana; 1680. urtean Dietrich Buxtehudek konposatutako musika oinarrian hartu eta Eneko Sagardoyk, testua idatzi ostean, pertsonaia nagusia antzeztu zuena. Testua argitara gabea da, oraingoz. Giza sufrimenduaren, heriotzaren, minaren eta norbanakoaren existentziaren beste hausnarketa bat da honakoa. Obran latina klasikoan, gazteleraz eta euskaraz ari dira, eta moto istripu baten ondorioz hildako lagunaren istorioa kontatzen da bertan: gelditu denaren lagunaren mina da kasu honetan kalbarioa, gorputzean sentitzen dena eta ariman bizi dena³². Jesus gurutziltzatuaren gorputzeko ataletako minak deskribatzen ditu musikak, testuak berriz XXI. mendeko kezka eta maitasun kontuak ditu hizpide, gai unibertsal modura «kontsolamendu eta itxaropen bila» birsortzen delarik drama. Heriotza gure maiteen ingurumarira gerturatzen denean eta arrazoirik topatzen ez dugunetan, bidegabekeriak barruko zati bat zuztarretik erauzten duenean, mina eta itxaropena oroitzapenen kaxan nahasmahasten direnean...

Ez ditzagun ahaztu, bestalde, gaur egun oraindik tradizioari men eginaz herri batzuetan irudikatzen direla prozesio zein antzezkiuzon erlijiosuak, lan honen gaurkotasuna azpimarratuz. Jarraitzen dela antzerki herrikoietan, forma ezberdinetan, herri-giroan sortzen diren botere harremanak, bidegabekeriak, sufrikarioak eta minak epaitzen. Guztiak dira euren garaikoak eta egileek testuinguru jakin eta zehatzetatik kontatzen dute euren oinazea. Halatan, guztiek dute antzerki-ahots eta forman kontatuko kalbarioa oinarrian, denek kontatzen dute mina, Unamunoren «sentimendu tragikoa», agonia edo talka. Eta *Erri bat guruzbidean*-ek, beste aipatutako adibideek bezalaxe, garai bateko euskal gizartearen erretratua islatzen du nabarmenki.

Garaiko historia ezagutzeko nahiak ekarri gaitu egun Mitxelenaren lanera, gure aurrekoen erretratua ulertzeko bide baliotsua dela uste baitugu. Autoreak lau atal oso esanguratsuren gainean sortu zuen antzezlana (euskal teatroa, erbestea, herria eta kristau-fedea), eta gaur egun gure historiaren erreferentzia bat denez, beste etorkizuneko guruzbideak ulertzeko baitezpadakoa dela ziur gaude; are gehiago, memoria historikoari leku egin eta *Erri bat guruzbidean* balioa gordetzea ezinbestekoa dela sinetsita gaude.

³¹ Corredoiraren (2014).

³² Lagun zenduaren izena obran *Josu* da, Jesusen euskal izena. Motoak (eszenografia bakarrak denak) gurutzeari irudikatzen du ikuskizunean, eta Arantzazu Fernandezek (2022) «Jesuri Josu-Eneko esaten diogu gurean» *Berriako* kritikak zioenez: «Irakurketa konplexu horren barruan sartuko genuke antzerki honek kalbarioa bere garaira ekartzeko ahalegina. Kontzeptu historikoetan konta liteke gertakizuna, baina aldi berean gaurkotasun bete-betean kokatuta dago istorioa: gainditu zinezko abusuak eta utzitako sekuelak atzeman dira oinazearen erroetan».

Honela bada, bukatzeko zera ondorioztatu nahi da azken lerrootan: Teatroa teatroaren barruko teknikaz baliatuz, hizkuntza poetikoa ahozkoa ekartzeko ahalegina da honakoa; erbesteko pentsamolde existentzialista baten erretratu soziologiko-teologiko-politikoa, kanpo eta barne gerra baten arteko elkarrekintza, sentimendu tragikoaren eta maitasunaren arteko borroka, mugimenduan zen gizarte baten adierazlea, teatro kostunbrista erlijioso baten paradigma berritzailea, euskaldunona izan zen garai historiko bati erreferentzia zuzena egiten diena, maitasunak eragindako mina gerraren parte izan zela argitzen duena, kanpo gerra hura barne-gerra bihurtu zuena. Iturriak (1966:64) ondo zioen bezala, Salvatore Mitxelena «herri baten boza» izan baitzen, Euskal Herri zauritu eta itxaropentsu baten ahotsa. *Erri bat gurutzean*, berriz, boz haren erretratua da.

VI.- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Agirretxe, E. (1970) «Mitxelenarekin pentsaketan» in *Salvatore Mitxelena*, Jakin sorta 2, Arantzazu-Oñati, EFA, or. 119-131.
- (1977) «Mitxelenarekin pentsaketan» in *Salvatore Mitxelena, Idazlan guztiak (I)*, Arantzazu-Oñati, EFA, or. 49-66.
- Aldekoa, I. (2008) *Euskal literaturaren historia*, Donostia, Erein.
- (2015) *68ko Belaunaldia*, Donostia, Utriusque Vasconiae.
- Álvarez, A. (2007) «Katariñe Eleizegi, barne erbesteko kasu bat» in *Non zeuden emakumeak? La mujer vasca en el exilio de 1936*, Donostia, Saturrarán, or. 477-491.
- Álvarez, J. L. *Txillardegi* (1970) «Saiakera eta hizkuntzen pizkundea» in *Salvatore Mitxelena*, Jakin sorta 2, Arantzazu-Oñati, EFA, or. 55-64.
- Apaolaza, X. (2003) «Su txikiari eragiteko hauspoa» in *Herri bat bidegurutzean*, Donostia, Saturrarán, or. 9-21.
- Ascunce, J.A. (2013) «Erbestea eta nortasuna» in *Nortasuna eta Integrazioa*, Euskal Erbesteko Ahotsak, Donostia, Saturrarán, or. 17-55.
- Azurmendi, J. (1977) «Salvatore Mitxelena bere lekuratzeko» in *Salvatore Mitxelena, Idazlan guztiak (I)*, Arantzazu-Oñati, EFA, or. 27-58.
- Corredoira J. M. (2014): *Diferencias sobre la muerte*, Ciudad Real, Ñaque.
- Ezezaguna: *Arriaga Antzokia*, <https://www.teatroarriaga.eus/programacion/moto-membra-jesu-nostri/?lang=eu>, 2022/10/12.
- Ezezaguna: *Time* aldizkaria, «Religion: Embattled Basques», 1952/02/22.
- Fernandez, A. (2022) «Jesuri Josu-Eneko esaten diogu gurean» in *Berria*, 2022-10-16. <https://www.berria.eus/paperekoa/2002/034/001/2022-10-16/jesuri-josu-eneko-esaten-diogu-gurean.htm>.

- Gil Fombellida, M. K. (2007) «Breve diccionario de mujeres vascas en el exilio» in *Non zeuden emakumeak? La mujer vasca en el exilio de 1936*, Donostia, Saturraran, or. 97-140.
- Gutiérrez Carbajo, F. (2014) «Recreaciones teatrales de la pasión. Tercera diferencia sobre la muerte de José Manuel Correira», *Epos Revista de Filología*, 30, Madrid, or. 195-214.
- Iturria, K. (1966) «Agur, aita Salvatore!» in *Jakin 10 urte*, 21, Arantzazu-Oñati, or. 55-64.
- (1977) «Erri bat guruzbidean» in *Salvatore Mitxelena, Idazlan guztiak (I)*, Arantzazu-Oñati, EFA, or. 171-176.
- Lasagabaster, T. (2003) «Erbesteko literatura eta Euskal literaturaren historia» in *Herri bat bidegurutzean*, Donostia, Saturraran, or. 23-38.
- Lete, X. (1965) «Aresti'ren Beste mundukoak'ekin teatro berria asi zela, esan genezakegu, dio Lete'k» in *Zeruko Argia*, Donostia, 1965-1-24.
- Mendiguren, X. (2003) «Salvatore Mitxelena: lehenengo euskal idazle existentsialista» in *Herri bat bidegurutzean*, Donostia, Saturraran, or. 153-175.
- Mitxelena, S.: *Erri bat guruzbidean. Confixus*, Klasikoen gordailua, Armiarma. <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MitxelenaSGutuzbidean001.htm>.
- Toledo Lezeta, A.M. (1999) «Txomin Agirre (1864-1920): mende-mugako zurrunbilotik urrun», *Bidebarrieta*, 4, Bilbao, or. 125-136.
- Torrealdai, J.M. (1970) «Hitzaurrea» in *Salvatore Mitxelena*, Jakin sorta 2, Arantzazu-Oñati, EFA, or. 5-8.
- (1970) «Mitxelenaren argitaratugabeko lanak» in *Salvatore Mitxelena*, Jakin sorta 2, Arantzazu-Oñati, EFA, or. 81-98.
- (2000) *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura (1936-1983)*. Zaurantz, Susa.
- Unamuno, M. (1928) *Del sentimiento trágico de la vida en los hombres y en los pueblos. Vol. II*, Madrid, Renacimiento.
- Unzurrunzaga, I. (2002) *Salvatore Mitxelena*, Bidegileak Saila, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Villasante, J.L. (1977) «Salvatore Mitxelenaren pertsona» in *Salvatore Mitxelena, Idazlan guztiak (II)*, Arantzazu-Oñati, EFA, or. 11-15.
- Zenbaiten Artean (1977): *Salvatore Mitxelena, Idazlan guztiak I eta II*, Arantzazu-Oñati, EFA.
- (2022): *Moto Membra Josu Nostri. Arriaga Antzokia* Teaserra: <https://youtu.be/B6qz7fjUecU>